



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 30a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Justizia Administrazioari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (2. or.).
- Nafarroako herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko foru lege bat egitea iradokitzen duen txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (32. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Justizia Administrazioari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren bulegoak Nafarroako Justizia Administrazioari buruz eginiko txosten bereziaren berri baduela Mahaiak.
2. Txosten hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Justizia Administrazioari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

AURKIBIDEA

- I. Txostenaren xedea (2. or.).
- II. Erreferentziako lege-esparrua (3. or.).
- III. Nafarroako justiziaren egoera 2009an (3. or.).
- IV. Justizia Administrazioa dela eta Nafarroako Arartekoari aurkeztutako kexak (7. or.).
 - 4.1. Kexen kopurua eta arloz arloko sailkapena (7. or.).
 - 4.2. Kexen izapidetzea (10. or.).
 - 4.2.1. Nafarroako Auzitegi Nagusira igorritako kexak (10. or.).
 - 4.2.2. Gorte Nagusietako Arartekoari igorritako kexak (12. or.).
 - 4.2.3. Nafarroako Arartekoak ebatzitako kexak. Gomendioak (13. or.).
- V. Ondorioak (14. or.).

Eranskina: Erakunde honi aurkeztutako kexei buruzko laburpen-taula (16. or.).

I. TXOSTENAREN XEDEA.

Nafarroako Arartekoaren erakundeak 2009. urtean zehar garatutako jarduerari buruzko urteko txostena Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean aurkezten ari ginela, talde parlamentario batek iradoki zuen txosten bat egin zitekeela justizia administrazioa dela-eta erakunde honetan jasotako kexen kopuruari eta kexa horien motari buruz, bai eta kexa horiek izapidetzearen emaitzei buruz ere.

Irakokizun hori aintzat hartuta, txosten hau egin dugu, non aztertzen baitugu herritarrek justizia administrazioaren arloari buruz eta harekin lotutako beste gai batzuei buruz 2001etik –urte hartan hasi baitzen lanean erakundea– 2010ko ekainera arte aurkeztutako kexen gainean Nafarroako Arartekoak izan duen jarduera.

Txostenak eginkizun jurisdikzionalaz baliatzea rekin zuzenean lotutako kexak jasotzen ditu, bai eta abokatuen eta prokuradoreen jokabideari buruzko, doako laguntza juridikoaren zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko eta Justizia Ministerioren menpeko erregistroen funtzionamenduari buruzko beste kexa batzuk ere.

Txosten honetan ez dira sartzten Justizia Administrazioari laguntza emateko antolamendu administratiboari buruzko kexak –"Justizia Administrazioaren administrazioa" esaten zaio horri–; izan ere, horrek jarduera materialki administratiboa dauka eta ez jurisdikzionala eta eskumen hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio. Izan ere, gisa horretako kexak, gehiengotan, funtzio publikoari buruzkoak dira, eta Nafarroako Arartekoaren erakundeak urtero Nafarroako Parlamentuari aurkezten dion txosten arruntean islatzen dira.

Egiturari dagokionez, txostenak lau atal dauka:

- Lehenengo atalean, aplikatzekoa den arauen esparrua deskribatzen da (II. kapitulua).

- Bigarrenean, berriz, Nafarroako justiziaren 2009ko egoerari buruzko deskribapen bat egiten da (III. kapitulua).

- Hirugarren atalean, aurkeztutako kexen kopuruari buruzko informazioa ematen da, bai eta haien arloz arloko sailkapena, eginiko kudeaketari buruzko datuak eta izapidetzearen ondorioz lortu diren emaitzak ere (IV. kapitulua).

- Azkenekoan, eginiko azterketaren ondorioak ematen dira (V. kapitulua).

II. ERREFERENTZIAKO LEGE-ESPARRUA.

Jakina den bezala, Konstituzioko 117.3 artikuluan xedatuarena arabera, botere jurisdikzionalaz baliatzea, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, legeek zehaztutako epaitegiei eta auzitegiei dago-kie, haiek eskumenei eta prozedurari buruz ezartzen dituzten arauen arabera. Beraz, eginkizun jurisdikzionalari buruzko gainbegiratzea soilik botere judizialari dagokio, eta horrek bere tresnak dauka gainbegiratzeko eta kontrolatzeko.

Transkribatu dugun konstituzio-arauarekin bat, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko m) letrak ezarri zuen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari erregelamendu ahalmena dagokiola epaitegiak eta auzitegiak ikuskatzeari dagokionez eta kexak eta salaketak izapidetzeari dagokionez.

Aurreikuspen hori betetzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak, 1998ko abenduaren 2ko erabakiaren bitartez, Epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari buruzko kexak eta salaketak izapidetzeari buruzko 1/1998 Erregelamendua onetsi zuen.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 13. artikulua ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari Ministerio Fiskalari edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zuzentzeko, Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak jasotzen dituenean, bai eta kexa horiek aurrez helarazteko ere ukitutako organo judizialari: entzutegi probintzialari edo Nafarroako Auzitegi Nagusiari.

Foru legeak, hortaz, komunikazio-bide bat ezartzen du Nafarroako Arartekoaren erakundearen eta Botere Judizialaren artean, eta bide horrek, praktikan, berarekin ekarri du Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Nafarroako Arartekoaren artean lankidetzara arina izatea, hain zuzen ere herritarrek justiziaren funtzionamenduari buruz egindako kexak lehenbizikoari komunika-

tzeari dagokionez. Hori guztia, honakoak guztiz errespetatuta: erabaki judizialak, haiek hartzeko erabilitako prozedura eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Nafarroako epaitegien eta auzitegien gainean darabiltzan gainbegiratze- eta kontrol-tresnak.

III. NAFARROAK JUSTIZIAREN EGOERA 2009an.

III.1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2010ean "La Justicia dato a dato" txostena argitaratu du. Joan den ekainaren 29an aurkeztu zuen. Txosten horretan Nafarroako justiziaren egoerari buruzko datu ugari bildu eta sintetizatzen dira.

Txostenaren arabera, Nafarroak 60 epaile eta magistratu dauzka plantillan. Horietatik, 45 jurisdikzio zibil eta penalean; 9 administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta 6 lan arloko jurisdikzioan. Horrek esan nahi du 100.000 biztanle bakoitzeko, Nafarroak 9,5 epaile eta magistratu dituela eta, horrenbestez, Espainiako batez bestekoaren (10,3 epaile eta magistratu) azpitik dagoela biztanle bakoitzeko epaileen kopuruari dagokionez.

Gainera, Nafarroan 267 bake-epaitegi daude, zeinek Espainiako lurralde osoan dauden bake-epaitegi guztien (7.681 dira) % 3 egiten baitute.

Bestalde, Ministerio Fiskalaren plantilla organikoak 13 fiskal eta 5 abokatu fiskal dauzka, hain zuzen ere Espainiako lurraldean dauden % 1, Espainiako lurraldean 1.599 fiskal eta 567 abokatu fiskal baitaude.

Nafarroako idazkari judizialen plantillan 45 pertsona daude, eta horiek ere Espainian dauden guztien (3.778) % 1 dira.

Justizia Administrazioako funtzionarioen plantillan honakoak daude: 8 auzitegi mediku, kudeaketa prozesalaren kidegoko 113 funtzionario, izapidetze prozesalaren kidegoko 158 funtzionario eta laguntza judizialaren kidegoko 72 funtzionario.

Nafarroan, 1.240 abokatu eta 91 prokuradore daude, eta Espainian dauden guztien % 1 egiten dute. Nafarroako batez bestekoa Espainiakoaren azpitik dago, beraz.

Jabetzako eta merkataritzako erregistratzaileak 14 dira guztira; Espainiako lurraldean, berriz, 940 daude guztira.

Nafarroan jardunean dauden notarioak 45 dira; Espainian, berriz, 3.212 daude guztira.

Ikus daitekeen bezala, adierazle gehienetan, Nafarroa Espainiako datuen % 1ean dago, eta epaileen kopuruari dagokionez Espainiako batez bestekoaren azpitik dago.

III.2. Estatuak eta autonomia erkidego eskudunek justiziarako daukaten aurrekontuari erreparatuz gero, honakoak dira datuak:

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateak doako justiziarako bideratu duen aurrekontua 1.850.000 eurokoa izan da 2009an.

Aurrekontuak	2008	2009	Bilakaera
Andaluzia	395.711.488	412.522.938	4,2%
Kanariar Uharteak	162.881.708	157.618.686	-3,2%
Katalunia	439.268.815	466.773.957	6,3%
Valentzia	239.647.010	240.289.170	0,3%
Galizia	99.167.373	102.708.532	3,6%
Madril	420.417.935	415.418.726	-1,2%
<i>Nafarroako Foru Komunitatea</i>	<i>31.534.797</i>	<i>34.442.164</i>	<i>9,2%</i>
Euskal Autonomia Erkidegoa	155.051.311	175.863.727	13,4%
Autonomia erkidegoak eta Foru Komunitatea, guztira	1.943.680.437	2.005.637.900	3,2%
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	72.863.890	77.042.570	5,7%
Justizia Ministerioa	1.395.044.560	1.475.393.360	5,8%
Guztizko nazionala	3.411.588.887	3.558.073.830	4,3%

III.3. 2009an, Nafarroako organo judizialean sartutako gaiak 99.675 izan ziren hain zuzen ere, Espainian urte berean erregistratu zirenen (9.567.280 gai) % 1,04.

Arlo jurisdikzionalari erreparatuta:

- Nafarroan sartu ziren gaietatik 21.864 jatorri zibilekoak izan ziren, eta guztien % 21,9 egiten dute;

- 70.348k, berriz, zigor arloko jatorria dute, eta guztien % 70,6 egiten dute;

- 3.179 gai administrazioarekiko auzien arlokoak dira, eta guztien % 3,2 egiten dute;

- 4.284, azkenik, lan arlokoak dira, eta guztien % 4,3 egiten dute.

III.4. Nafarroan, 2009an, organo judizialek ebazitako gaiak 95.408 izan ziren. Horietatik 19.261 zibilak (% 20,2), 69.487 penalak (% 72,8), 2.783 administrazioarekiko auzien arlokoak (% 2,9) eta 3.877 lan arlokoak (% 4,06). 2009. urtearen bukeran izapidetzen geratu ziren gaiak 24.466 izan ziren. Honela bana daitezke: 10.122 zibilak, 10.031

penalak, 2.507 administrazioarekiko auzien arlokoak eta 1.806, azkenik, lan arlokoak.

Ikus daitekeen bezala, sartu diren eta ebatzi diren gai gehienak penalak dira: hamarretik zazpi.

Sartu diren eta ebatzi diren gaien arteko aldea 4.267 da; hain zuzen ere % 4,28. Zenbateko hori arrazoizkoa izan daiteke.

III.5. "Metaketa judizialaren tasa" deitutakoa, Nafarroari eta 2009. urteari dagokienez, 1,25ekoa izan zen, eta Espainiako batez bestekoaren (1,35) azpitik dago.

"Metaketa judizialaren tasa" hori kalkulatzeko honako zatiketa egiten da: a) urte hasieran ebazteko dauden gaiak gehi urte horretan erregistratutakoak zati b) urte horretan ebazitako gaien kopurua.

Arlo jurisdikzionalari erreparatuta, Nafarroako metaketa judizialaren tasa honakoa izan zen: 1,54 arlo zibilean (batez besteko nazionala 1,78); 1,13 zigor arloan (batez besteko nazionala 1,17); 1,89 administrazioarekiko auzien arloan (batez besteko

nazionala 2,32); 1,47 lan arloan (batez besteko nazionala 1,73).

III.6. Nafarroako auzi-kopuruari dagokionez, maila baxueneko nazionalitate eta erregioen artean dago, Euskadirekin, Errioxarekin, Extremadurarekin, Gaztela-Mantxarekin eta Asturiasekin batera. Auzi-kopuru gehien dituzten nazionalitate eta erregioen artean, Andaluzia, Madril, Valentzia eta Kanariar Uharteak daude.

III.7. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justiziaren kalitatea neurtzeko, hiru adierazle erabiltzen ditu, besteak beste:

a) Lehenengoa magistratuek eta karrerako epaileek emandako epaien ehunekoa, epaile ez-profesionalek emandako epaiekin alderatuta.

Hauexek dira Nafarroako datuak:

- Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak (gai zibiletan, familiako gaiak barne direla): epaien % 91 magistratuek eta karrerako epaileek eman dituzte; ordezkoko epaileek, berriz, epaien % 8,7 eman dituzte.

- Zigor arloko epaitegiak: epaien % 80,8 magistratuek eta karrerako epaileek eman dituzte; % 11,8, berriz, ordezkoko eman dituzte (gainera, epaien % 6,5 errefortzuko epaileek eman dituzte).

- Administrazioarekiko auzietako epaitegiak: epaien % 94,3 magistratuek eta karrerako epaileek eman dituzte; ordezkoko epaileek, berriz, epaien % 5,5 eman dituzte.

- Lan arloko epaitegiak: epaien % 66,5 magistratuek eta karrerako epaileek eman dituzte; ordezkoko epaileek, berriz, epaien % 33,5 eman dituzte.

Ikus daitekeen bezala, bi arlotan (arlotan (arlotan) eta administrazioarekiko auzien arloan) epaien % 90 karrerako epaileek eman dituzte. Zigor arloan, berriz, portzentajea % 80raino jaisten da.

Nabarmenezkoa da lan arloko jurisdikzioko epaile titularrek emandako epaien portzentaje txikia: % 66 baizik ez (hiru epaitatik bat).

b) Bigarren adierazle bat hauxe da: lehen auzialdian emandako epaien aurka aurkeztutako errekurtsoen kopurua eta epai horien berrestea edo ezeztea. Jurisdikzio zibilean, % 5 dira emandako epaien aurka aurkeztutako errekurtsuak. Epai horien % 87,5 berretsi dira.

Logikoa denez, zigor arloko jurisdikzioan, errekurtsuen kopurua handiagoa da, % 16,8 hain zuzen, eta epai horien % 73,1 berretsi dira.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, berriz, errekurtsu horiek % 28,6 egiten dute, eta epaien % 76,1 berretsi dira.

Eta lan arloko jurisdikzioan, errekurtsu horiek % 19,5 egiten dute, eta epaien % 88,9 berretsi dira.

c) Erabili diren adierazleetatik hirugarrena gaierarako kalkulaturako iraupena da, hau da, gaiak organo judizialean zenbat denboraz egoten diren. Iraupena hilabetetan kalkulatu da, eta honakoa da, Nafarroari dagokionez:

- Gai zibilak lehen auzialdiko epaitegietan, lehen auzialdian, instrukzioan eta familia arloan: 5 hilabete. Espainiako batez bestekoa 7,7 hilabete da.

- Entzutegi Probintzialeko errekurtsu zibilak: 8,6 hilabete. Espainiako batez bestekoa 5,5 hilabete da.

- Entzutegi Probintzialeko zigor arloko sumarioak: 13,6 hilabete. Espainiako batez bestekoa 9,3 hilabete da.

- Entzutegi Probintziala, zinpekoekin: 5 hilabete. Espainiako batez bestekoa 6 hilabete da.

- Entzutegi Probintzialeko zigor arloko errekurtsuak: 2,7 hilabete. Espainiako batez bestekoa 2,2 hilabete da.

- Lan arloko epaitegietako gaiak: 5,2 hilabete. Espainiako batez bestekoa 6,4 hilabete da.

Ikus daitekeen bezala, gaiak Nafarroako organo judizialean eman duten denbora batez bestekoa baino txikiagoa da.

Gaiak administrazioarekiko auzien epaitegietan eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan irauten duten denborari buruzko datua ez da ageri Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostenean. Nazio mailan, gai horiek 11,1 hilabete irauten dute administrazioarekiko auzien epaitegietan; instantzia bakarreko gaiak, berriz, 22,2 hilabete irauten dute auzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien saletan.

III.8. Justizia Administrazioaren funtzionamendua dela-eta botere judizialaren unitateen aurrean herritarrek aurkeztutako erreklamazioei dagokionez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak honako datuak dauzka Espainia osoari buruz:

1. Erreklamazioak, salaketak, iradokizunak eta idatzizko informazio eskariak, esku-hartzea eskatu zaion organoaren arabera

– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Herri-tarrei Laguntzeko Unitatearen aurrean: 10.839

– Bestelako gobernu-organoen aurrean: 2.371

– Ikuskapen Zerbitzuaren aurrean: 1.788

2. Erreklamazio eta salaketa idazkien arrazoiak, iradokizunak eta informazio eskariak (18.606 erreklamazio)

– Epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari buruzkoak: 14.010 (% 75,3)

– Erabaki judizialarekin ados ez egotea: 2.497 (% 13,4)

– Sailkaezinak edo kanpoko arrazoiaren bat: 1.316 (% 7,1)

– Informazio eskaerak: 547 (% 2,9)

– Iradokizunak: 161 (% 0,9)

– Esker-erakutsiak: 75 (% 0,4)

Honakoa da epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari buruzko 14.010 erreklamazioen arrazoei buruzko azalpena:

a) Justizia modernoa izatearen eta herritarren zatat zabalik egotearen aldekoak (12.450 erreklamazio)

– Justizia gardena izatearen aldekoak, 1.052

Justizia ulergarria izatearen aldekoak, 11

– Justizia arretatsua izatearen aldekoak, 5.619

Epigrafe honen barruan, honakoak dira garrantzitsuenak:

√ Itxaroteko denborak gutxitzeko eskubidea (1.895).

√ Errespetuzko arreta jasotzeko eskubidea (1.130).

√ Ordutegi nahikoa izateko eskubidea (1.066).

√ Itxaroteko egoitza egokiak eta arreta zuzena jasotzeko eskubidea (688).

– Herritarraren aurrean erantzukizuna duen justizia baten aldekoak, 193.

– Justizia arin eta teknologikoki aurreratuaren aldekoak, 5.575.

Epigrafe honen barruan, honakoak dira garrantzitsuenak:

√ Kasuan kasuko herritarrarengan eragina duten gaiak arintasunez izapidetzeko eta atzerapenen arrazoiak ezagutzeko eskubidea (3.576).

√ Plantillak modu egokian diseinatuta egoteko eskubidea (794).

b) Ahulenak babestuko duen justizia (146 erreklamazio)

– Delituen biktimen babesa, 30

– Adingabeen babesa, 2

– Ezgaituen babesa, 107

– Immigranteak justiziaren aurrean, 7

c) Abokatu eta prokuradoreekin konfiantzazko harremana izatea (266 erreklamazio)

– Jokabide deontologiko zuzena, 52

– Herritarra informatuta egotea, 7

– Kalitatezko doako justizia, 207

d) Eskubideen Gutunean jasota ageri ez diren beste arrazoi batzuk (1.149 erreklamazio)

– Jardun profesionala, 247

– Jarduteko modua, 902

Nabarmentzekoa da garrantzitsua dela herritarrek Justizia Administrazioarekiko harremanetan dauzkaten Eskubideen Gutun bat badagoela. Izan ere, horrek erakusten du administrazio horrek ahalginak egiten dituela modernizatzeko, hobe izateko, erabiltzaileen eskubideei zerbitzatzeko eta eskubide horiek bermatzeko.

3. Erreklamazioak alor jurisdikzionalaren arabera

– Erregistro Zibila: 4.745 (% 34)

– Zigor arloa: 3.433 (% 25)

– Arlo zibila 1.615 (% 12)

4. Erreklamazioak egiten dituztenen egoera juridikoa

– Partikularra: 12.416 (% 80,9)

– Espetxeratua, 1.026 (% 6,7)

– Operadore juridikoak, 1.292 (% 8,4)

5. Lurraldearen arabeko banaketa

Espania osoan dauden organo judizialei buruz aurkeztutako 15.770 erreklamazioetatik soilik 83 dagozkio Nafarroari, portzentaje oso txikia beraz (% 0,52 da).

Datu horietatik guztietatik, honako ondorioak atera daitezke:

A) Herritarren erreklamazio gehienak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Herritarrei Laguntzeko Unitatearen bitartez bideratzen dira (% 72,3).

B) Prozedura judizialei dagokienez, erreklamazio arrazoi nagusia epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari dagokiona da (% 75,3 dira). Nabarmentzekoa da prozesuen atzeratzeagatik

erreklamazioak ez direla erreklamazio guztien % 30era iristen, nahiz eta orokorrean badirudien horixe dela herritarraren kexa nagusia Espainiako justiziaren funtzionamenduari dagokionez.

C) Soilik erreklamazioen % 13,4 erabaki judizialarekin ados ez egoteari buruzkoak dira. Ezin da inolaz ere jo ehuneko hori handia denik.

D) Erreklamazio-egile gehienak partikularrak dira (% 81).

E) Nafarroako erreklamazioen kopurua (guztizkoaren % 0,52), Kantabriakoarekin batera, Espainiako txikiena da.

IV. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA DELA ETA NAFARROAKO ARARTEKOARI AURKEZTUTAKO KEXAK

IV.1 KEXEN KOPURUA ETA ARLOZ ARLOKO SAILKAPENA

Nafarroako Arartekoari Justizia Administrazioa dela-eta 175 kexa aurkeztu zaizkio 2001etik hasi eta 2010eko ekainaren 30era arte. Hauxe da haien urtez urteko banaketa:

Urtea	Justiziari buruzko kexak	Kexak, guztira	%
2001	12	318	3,8%
2002	24	397	6,0%
2003	18	303	5,9%
2004	13	416	3,1%
2005	21	415	5,1%
2006	17	440	3,9%
2007	14	447	3,1%
2008	10	647	1,5%
2009	28	901	3,1%
2010 (*)	18	540	3,3%
GUZTIRA	175	4.824	3,6%


(*) 2010eko ekainaren 30eko datuak

Guztira aurkeztu diren 175 kexa horiek herritarrek Nafarroako Arartekoari aurkeztutakoen % 3,6 baizik ez dira. Horrenbestez, ondoriozta daiteke Justizia Administrazioari buruzko kexen kopurua txikia dela, kexen guztizkoarekin alderatuz gero.

Gaiaren arabera, honakoa da 175 kexa horien banaketa:

KEXAREN XEDEA	
I. PROZESU JUDIZIALAK, GUZTIRA	103
1.1 PROZESU ZIBILA	43
Geroratzea	9
Izapidetzea	5
Emitza	14
Epaien betearazpena	15
Betearazpenaren geroratzea	12
Betearazpenarekin ados ez egotea	3
1.2 ZIGOR ARLOKO PROZESUA	47
Geroratzea	6
Izapidetzea	24
Emitza	13
Epaien betearazpena	4
Betearazpenaren geroratzea	2
Betearazpenarekin ados ez egotea	2
1.3 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN PROZESUA	8
Geroratzea	0
Izapidetzea	0
Emitza	6
Epaien betearazpena	2
Betearazpenaren geroratzea	2
Betearazpenarekin ados ez egotea	0
1.4 LAN ARLOKO PROZESUA	4
Geroratzea	1
Izapidetzea	0
Emitza	3
Epaien betearazpena	0
Betearazpenaren geroratzea	0
Betearazpenarekin ados ez egotea	0
1.5 PROZESU KONSTITUZIONALA	1
Geroratzea	1
Izapidetzea	0
Emitza	0
Epaien betearazpena	0
Betearazpenaren geroratzea	0
Betearazpenarekin ados ez egotea	0
II. ERREGISTROAK	33
III. ELKARGOAK	28
IV. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA	7
V. KALTE ORDAINAK	2
VI. PERITAZIOAK	2
Guztira	175

Ikus daitekeen bezala, 175 kexetatik, soilik 103 (% 59) epaitegiek eta auzitegiek botere jurisdikzionalaz baliatzeko moduari buruzkoak dira: bitik bat baino zerbait gehiago. Gainerakoak Justizia Administrazioarekin lotutako esparruei buruzkoak dira, baina ez hertsiki botere jurisdikzionalari buruzkoak.



Edukiari dagokionez:

- prozesu judizialei buruzko kexen % 35 herritarrek erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzkoak dira. Datu hori ez dator bat Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2009. urteari buruz eman duen txostenean ageri denarekin; izan ere, hartan, erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzko erreklamazioak % 13,4 dira.

- % 33 prozesu judizialak geroratzeari buruzkoak edo epaiak betearazteari buruzkoak dira. Ehuneko hori hurbil dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostenean islatzen denetik.

- % 28 prozesua izapidetzeko faseekin ados ez egoteari buruzkoak dira; gehienak probak onartu eta praktikatzeari buruzkoak dira.

- Azkenik, kexen % 5ek epaiak betearazterekin ados ez egoteari buruzkoak dira.

Alor jurisdikzionalari erreparatuz gero, egiazta daiteke prozesu judizialei buruzko kexa gehienak zigor arloari buruzkoak izan direla; hurrena, arlo zibila dator.

Prozesu zibiletan, nagusitzen diren kexek lotura dute epaiak betearaztearekin; zehazki, epaiak

betearaztean geroratzearekin. Eta prozesu judizialen emaitzari buruzko desadostasuna agertzen dute.

Zigor arloan, herritarren kexek nagusiki egintza prozesalei buruzko desadostasunak biltzen dituzte; besteak beste, probak onartu eta praktikatzeari buruz, espetxeratze prebentiboaren neurria hartzeari buruz eta delitua egotzeari buruz.

Administrazioarekiko auzien arlo jurisdikzionalari eta lan-arlo jurisdikzionalari buruzko kexak, berriz, gutxi dira, eta gehienak herritarrek erabaki judizialekin ados ez egotearen gainekoak dira.

Azkenik, kexa bakarra aurkeztu da Konstituzio Auzitegiaren jokoerari buruz. Nafarroako publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta hori garatzeko erregelamendu-arauek ezarritako ordainketa sistemaren aplikazioa erregularizatzeari buruzko azararen 2ko 17/1994 Foru Legea dela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien Salan aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko auzia izapidetzean izandako geroratzeari buruzkoa da aurkeztutako kexa hori.

Kexen bigarren multzoa Justizia Ministerioaren menpeko Erregistroen funtzionamenduari buruz-

koa da. Zehazki, 33 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 19 egiten dutenak. Erregistro Zibilari buruzko gaiak dira, Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zaizkionak, erakunde hori baita haiek ikuskatzeko eskumena duena, erregistro horrena Estatuaren jarduera bat baita.

Beheranzko ordenan, hirugarren tokian abokatuen eta prokuradoreen jardun profesionalari buruzko kexak ageri dira. 28 izan dira kexa horiek, eta guztizkoaren % 16 egiten dute. Jakina den bezala, abokatuen eta prokuradoreen lanbide elkargoek beren elkargokideen jarduera profesionalaren antolamendua dela-eta dauzkaten eginkizunak gainbegiratzen ditu Nafarroako Arartekoak, eta haien duintasun eta etika profesionala zaintzen ditu.

Aurrekoek gainera, 7 kexa aurkeztu dira doako laguntza juridikoari buruz. Zerbitzu hori Nafarroako Gobernuako Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuaren menpekoa da eta Abokatuen Elkargoak kudeatzen du. Halaber, 2 kexa aurkeztu ziren prozedura judizialean izendatutako perituei ez ordaintzeagatik eta beste 2 kexa, berriz, kalteordain judizialen izapidetzeari buruz.

Ikus daitekeen bezala, kexa gehienak zigor arloko prozesuei buruzkoak dira; ondotik prozesu zibilei, erregistroei eta lanbide elkargoari buruzkoak datoz. Esparru judizialean, kexa gehienak herritarrek erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzkoak dira, baita arlo judizialean izaten diren gerorazteen aurretik ere.

IV.2. KEXUEN TRAMITAZIOA

IV.2.1. Nafarroako Auzitegi Nagusira igorritako kexak

Botere Judizialaren abenduaren 1ko 1/1998 Erregelamenduko 2. artikulua arabera (epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari buruzko kexak eta salaketak izapidetzeari buruzkoa da), honako organoek daukate herritarrek aurkeztutako kexei erantzuteko eskumena:

– Epaitegiak eta auzitegiak lehendakariak: interesdunek kausa edo auzietan adierazten dituzten kexak entzuten dituzte, beren eskumenen esparruan behar diren prebentzio neurriak ezarriz, Botere Judizialaren Lege Organikoko 160. eta 162. artikuluetan ezarritakoaren arabera (artículos 160 y 162).

– Dekanoek, eta halakorik ez badago, epaile bakarrek: prozeduretan interesdunek aurkeztzen dizkieten kexak ebatzen dituzte, behar diren prebentzio neurriak ezarriz, Botere Judizialaren Lege

Organikoko 168. artikuluan ezarritakoaren arabera (artículo 168).

Botere judizialeko organoek epaitegien eta auzitegien funtzionamendua ikuskatzeko daukaten eskumenari erreparatuta, eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parlamentuaren goi ordezkariak urte hauetan 36 kexa helarazi dizkio Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari Justizia Administrazioaren funtzionamendua dela eta.

Kexa-espeditente horien izapidetzeak xede bat izan du: herritarrari zerbitzu eraginkorra ematea eta Justizia Administrazioarekiko lankidetzaren positiboa. Honakoak izan dira kasu horietan eginiko urratsak:

1. Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexa bat jasotzen duenean, Nafarroako Arartekoak haren edukiari buruzko azterketa egiten du, erabakitzeke, lehenbizi, ea zilegi den izapidetzeko onartzea eta, bigarrenik, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari igorri behar dion, edo, bestela, kexa onartzeari ezezkia eman behar dion, besteak beste, haren xedea delako erabaki judizialekin edo prozesu judizialeko aldean asmoekin ados ez egotea.

2. Onartzea erabakitzen baldin badu, Nafarroako Arartekoak Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari igortzen dio, eta azken horrek jaso izatearen berri ematen dio, eta, aldi berean, parlamentu-erakundeari jakinarazten dio egiten dituen jardueren gaineko txosten bat igorriko diola.

3. Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak behar den ikerketa espeditentea abiatzen du eta ukitutako epaitegi edo auzitegiari eskatzen dio behar den txostena eman dezan. Horren guztiaren xedea da gaia aztertzea, atzemandako akatsak zuzentzea, kasua bada, eta zehaztea ea diziplina arloko edo beste gisa batzuetako erantzukizunik baden epaitegien funtzionamendua dela eta.

4. Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak, ukitutako organo judizialaren txostena ikusita, behar den erabakia hartzen du.

5. Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak Nafarroako Arartekoari igortzen dio hartutako erabakia, eta, kasua bada, ukitutako organo judizialaren txostena gehitzen du.

6. Nafarroako Arartekoak kexa-egileari Nafarroako Auzitegi Nagusiko hartutako erabakiaren berri ematen dio eta amaitutzat ematen du bere esku-hartzea.

Prozedura hori, azken urteetan finkatutakoa, sistema arin eta eraginkorra da Nafarroako Arartekoak bideratzeko Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruz herritarrek aurkeztutako kekek.

Ikus daitekeen bezala, Nafarroako Arartekoaren erakundearen eta Nafarroako Auzitegi Nagusi-

ko lehendakariaren arteko harremanak honako ezaugarriak ditu: erakunde publikoen arteko lankidetzaren printzipioa eta botere baten eta besteen eskumen-esparruekiko errespetua.

Nafarroako Auzitegi Nagusiari igorritako kekek honako gaietarako buruzkoak izan dira:

NAFARROAK AUZITEGI NAGUSIARI IGORRITAKOAK	
Prozesu zibila	20
Epaia betearaztea	9
a) Betearazpena geroratzea	8
b) Betearazpenarekin ados ez egotea	1
Prozesuaren emaitza	2
Prozesuaren geroratzea	8
Prozesuaren izapidetzea	1
Zigor arloko prozesua	12
Epaia betearaztea	2
a) Betearazpena geroratzea	2
b) Betearazpenarekin ados ez egotea	0
Prozesuaren emaitza	1
Prozesuaren geroratzea	3
Prozesuaren izapidetzea	6
Administrazioarekiko auzien arloa	1
Epaia betearaztea	1
a) Betearazpena geroratzea	1
b) Betearazpenarekin ados ez egotea	0
Prozesuaren emaitza	0
Prozesuaren geroratzea	0
Prozesuaren izapidetzea	0
Erregistroen funtzionamendua	2
Peritazioak	1
GUZTIRA	36

Kexa horietatik gehienak epaiak betearazterakoan eta prozesu judizialak izapidetzerakoan izandako geroratzeei buruzkoak izan dira. Espediente horiek guztizkoaren ia % 60 egiten dute.

Kexa gehienak arlo jurisdikzional zibilari buruzkoak dira, eta nagusi dira familia prozesuei buruzkoak eta zenbatekoak erreklamatzekoak. Ondoren zigor arloa dator.

Kexa horietan agertutako egitateengatik, ez zen diziiplina-prozedurarik zabaldu behar izan –horretarako bidea ematen baitu Botere Judizialaren Lege Organikoko 423. artikulua–, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria hala erabakita.

Adierazi dugun bezala, herritarrak erabaki judizialekin ados ez egoteagatik jasotzen diren kexak ez zaizkio Nafarroako Auzitegi Nagusiari igortzen. Arartekoaren erakundeak zuzenean baztertzen ditu, zeren eta kexa horiek eragin intimoa baitute prozesu judizialak direla-eta aldeek dauzkaten asmoetan, eta haien garapen independentea aldaraz bailezakete.

Hala eta guztiz ere, aparteko kasuetan, kexa-egilea erabaki judizialarekin ados ez egoteaz gainerako beste elementuren bat dagoenean, zeina

Justizia Administrazioaren funtzionamendu normalari buruzko erreklamazio baten gisara hartu baitaiteke, kexa hori Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari igortzen zaio, deskribatu berri dugun prozedurari jarraituz.

Azkenik, aipa daiteke soilik kasu batean, igorritako kexa peritu-lanak ez ordaintzeari buruzkoa izan dela.

Iruñeko Erregistro Zibilaren funtzionamenduari dagokionez, bi kexa igorri zaizkio Auzitegi Nagusiari: kasu batean, ezkontza baten inskripzioan izandako geroratzeagatik; eta beste batean Erregistro Zibilak jaiotzaren hitzez hitzek ziurtagiria emateari ezezkoa emateagatik.

IV.2.2. Gorte Nagusietako Arartekoari igorritako kexak

Nafarroako Arartekoaren erakundeak Justizia Administrazioarekin lotutako 39 kexa igorri dizkio Gorte Nagusietako Arartekoari; guztira aurkeztutako 175 kexen % 22 egiten dute kexa horiek.

Gainera, beste 3 kexa igorri zaizkie autonomia erkidegoetako parlamentu-ordezkariei.

Arloari dagokionez, honela azal daitezke parlamentuetako goi ordezkariei igorritako kexak:

GORTE NAGUSIETAKO ARARTEKOARI IGORRITAKOAK	
Erregistroak	29
Zigor arloko prozesua	3
Geroratzea	2
Izapidetzea	1
Prozesu konstituzionala	1
Geroratzea	1
Prozesu zibila	3
Izapidetzea	3
Kalte ordainak eskatzea	1
Lanbide elkargoak	2
GUZTIRA	39

Beste autonomia erkidego batzuetako ordezkari i gorritakoak	
Gaia:	Nori igorria:
Auto judicial bat ez betetzea	Ararteko
Epai bat ez betetzea	Síndic de Greuges de la Comunitat Valenciana
Doako laguntza juridikoa ukatzea	Síndic de Greuges de Catalunya
GUZTIRA	3

Kexa gehienak Justizia Ministerioaren menpeko erregistroen funtzionamenduari buruzkoak izan dira; gehienak egintzak erregistro zibiletan inskribatzean izandako geroratzengatik edo inskripzioak egiteari ezezkoa emateagatik.

Bi parlamentu-erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, Gorte Nagusietako Arartekoak, behin kexa onartzen den ala ez erabaki ondoren, Nafarroako Parlamentuko goi ordezkariari espedientearen izapidetzearen berri eman dio eta, halaber, hari buruz geroztik hartzen den erabakiaren berri ere ematen dio.

Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zaizkion espediente guztietan, azken horrek jarduketaren bat egin du herritarrak aurkeztutako arazoari konponbideren bat emateko.

IV.2.3. Nafarroako Arartekoak ebatzitako kexak. Gomendioak:

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1.3 artikulua ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari ikuskatzeko edozein erakunde edo entitate, pertsona juridiko edo pribatu, baldin eta zerbitzu publiko batean diharduela nolabaiteko administrazio-kontrol edo -tutoretza egiten badiote, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateari eskumenak aitortzen dizkion gai orotan.

Agindu horri erreparatuta, Nafarroako Arartekoaren erakundearen abokatu eta prokuradoreen jardun profesionala dela eta jasotzen diren kexak lanbide-elkargoaren funtzionamenduari ikuspuntutik aztertzen dira, eta, bereziki, ikuskatzea dagokion zuzenbide publikoko korporazio horien dimentsio administratiboaren ikuspuntutik.

28 izan dira abokatuen eta prokuradoreen lanbide elkargoaren jokabideari buruz jasotako kexak.

Horietatik 7 ez dira onartu, beste 7 aintzat hartu dira eta beste 11 ez dira aintzat hartu. Behin gertatu da kexa-egileak bere asmoan atzera egi-

tea. Azkenik, 2 kexa Gorte Nagusietako Arartekoari igorri zaizkio.

Bere jokabidearen ondorioz, Nafarroako Arartekoak honako gomendioak egin dizkie Nafarroako Abokatuen Elkargoari eta Nafarroako Prokuradoreen Elkargoari:

A) Nafarroako Prokuradoreen Elkargoari

- Herritarrek elkargokideen jokabide profesionalengatik aurkeztutako kexak ebazteko hartzen dituen erabakiek motibazioa izan dezatela, aplikatzea den araudiari jarraituz. Onartua.

B) Iruñeko Abokatuen Elkargoari

- Doako laguntza juridikoa arautzen duen urtariraren 10eko 1/1996 Legeko 28. artikulua ez dadila modu murriztailean interpreta, eta nolahi ere kasu eta inguruabar guztietan ofizioz esleitutako legelari eta prokuradorea eragotz dadila. Onartua.

- Ofiziotzko txandarako batzordeak diziplina-espedientei buruz hartzen dituen erabakietan adieraz daitezela interesdunek haien aurka aurkez ditzaketen errekursoak bai eta errekurso horiek zein organo administratibo edo judicialen aurrean aurkeztu behar diren ere. Onartua.

7 izan dira doako laguntza juridikoaren zerbitzurako irispideari eta haren funtzionamenduari buruz erregistratutako kexak. Kexa horiek doako laguntza juridikoa ukateari buruzkoak eta esleitutako abokatuarekin ados ez egoteari buruzkoak izan dira, bai eta doako justizia zerbitzuaren funtzionamenduari buruzkoak ere.

7 kexetatik, Nafarroako Arartekoak 6 ebatzi ditu eta beste bat txosten hau ixteko unean oraindik ere ebatzi gabe dago.

Lau kexa itxi ziren jardueran inolako irregulartasunik atzeman ez zelako. Beste bat amaitu zen kexa-egileari doako laguntza juridikorako eskubi-dea aitortu zitzaionean.

Beste kexa bat Síndic de Greuges de Catalunya erakundeari igorri zitzaion, Tarrasako Abokatuen Elkargoaren jarduerari buruzkoa baitzen.

V. ONDORIOAK

Txosten honetan eginiko azterketatik, honako ondorio hauek atera daitezke:

Lehena. Nafarroako Arartekoari Justizia Administrazioa dela-eta aurkezten zaizkion kexen kopurua txikia da, guztira erakunde horri aurkezten zaizkion kexen aldean: guztira aurkeztutako 4.824 kexetatik 175 baizik ez dira (% 3,6).

Bigarrena. Kexa horien % 59 epaile eta epaitegiek epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko duten botere juridikzionalaz baliatzeari buruzkoak dira. Gainerako kexak Justizia Administrazioarekin lotutako beste alderdi batzuei buruzkoak dira (garrantziaren arabera hurrenkeran, garrantzi handienekotik hasita): erregistro zibilak, abokatuen elkargoak eta laguntza juridikoa.

Hirugarrena. Botere juridikzionalaz baliatzeari buruzko kexen artean, kexen ehuneko handiena, % 40 hain zuzen, herritarrek erabaki judizialekin edo epaiak betetzearekin ados ez egoteari buruzkoak dira. Ondoren, % 33rekin, prozesuen gerortzeari edo epaiak betearazteari buruzko kexak datoz. Deigarri egiten da kexa gehienak ez direla prozesu judizialak gerortzeari buruzkoak, nahiz eta uste orokorra hori den, baizik eta prozesuko aldeak erabaki judizialarekin ados ez egoteari buruzkoak; alderdi hori, izan ere, subjektiboagoa da, partikularren asmoekin lotuta dagoelako.

Laugarrena. Prozesu judizialei buruzko kexen % 28 izapide prozesalekin ados ez egoteari buruzkoak dira: zehazki, probak onartzeari eta egiteari buruzkoak.

Bosgarrena. Prozesu judizialei buruzko kexa gehienak zigor arloko juridikzioari eta juridikzio zibilari buruzkoak dira (% 46 zigor arloko juridikzioari buruzkoak, eta % 42 juridikzio zibilari buruzkoak). Ondoren, tarte handiarekin, administrazioarekiko auzien juridikzioa dator, % 8rekin. Lan-arloari buruzko kexak oso gutxi dira.

Seigarrena. Botere juridikzionalari buruzko kexak Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariari zuzentzen zaizkio, eta horrek, kasua bada, behar den ikerketa egiten du eta haren emaitza Nafarroako Arartekoari jakinarazten dio; azken horrek, bere aldetik, kexa aurkeztu duen herritarri emanen dizkio argibideak.

Prozedura hori Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 13.2 artikuluan oinarrituta dago, eta orain arte erakutsi da bide arin eta eraginkorra dela herritarrek Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruz Nafarroako Arartekoari aurkezten dizkioten kexak bideratzeko.

Zazpigarrena. Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariaren arteko lankidetzaren emankorra eta eredugarria dela esan daiteke, eta lankidetzaren eta erakundearen arteko elkarrekiko errespetuaren printzipioak gartzean oinarrituta dago.

Zortzigarrena. Botere juridikzionaletik kanpo, kexa-multzo handienak (% 19) Justizia Ministerioaren menpeko erregistroen funtzionamendua –batez ere, Erregistro Zibilarena– du ardatz. Kexa horiek Gorte Nagusietako Arartekoari igortzen zaizkio, bera baita haiek ikuskatzeko organo eskuduna.

Bederatzigarrena. Abokatuen eta prokuradoreen lanbide-jardunari buruzko kexak kexa guztien % 16 egiten dute. Kasu horretan, Nafarroako Arartekoari dagokio ikuskatzea lanbide elkargo horiek beren elkargokideak antolatzeke eginkizuna nola betetzen duten.

Nabarmendu beharra dago Iruñeko Abokatuen Elkargoari eginiko hiru gomendioak eta Nafarroako Prokuradoreen Elkargoari eginiko gomendioa gutiz onartu izan dituztela elkargo horiek.

Hamargarrena. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eginiko “La Justicia dato a dato” txostenak (2009koa da), berresten du Nafarroako herritarrek kexa gutxi aurkezten dituztela Nafarroako organo judizialen funtzionamenduari buruz. 83 erreklamazio baizik ez dira aurkeztu, eta horiek Espainiako gutzitzaoren % 0,5 egiten dute.

Halaber, honako datu hauek nabarmentzen dira:

- Nafarroako epaileen eta magistratuen kopurua Espainiako batez bestekoaren azpitik dago. Nafarroako abokatuen eta prokuradoreen kopurua ere batez besteko nazionalaren azpitik dago.

- Justiziaren aurrera eramaten diren gai gehienak (% 71) zigor arlokoak dira. % 22 gai zibilak dira; % 4, berriz, lan arlokoak, eta % 3, azkenik, administrazioarekiko auzien arlokoak.

- Nafarroako auzi-kopurua dela eta, tasa txikieneko autonomia erkidegoen artean gaude.

- Nafarroan erregistraturiko metaketa judizialaren tasa batez besteko nazionalaren azpitik dago.

- Ordezko epaile gehien dauden arlo juridikzionala lan-arloa da.

- Prozesu judizialen iraupena lehen auzialdiko, familiako eta lan-arloko epaitegien 5 hilabetetatik Entzutegi Probintzialeko zigor arloko sumarioen 13,6 hilabetetara bitartekoa da. Ez dago jasota

Nafarroako administrazioarekiko auzietako prozesuek zenbat irauten duten.

– Erreklamazioak aurkezteko gehien topatzen den arrazoia prozesu judizialen geroratzea da. Hala eta guztiz ere, erreklamazio guztien % 30era ere ez da iristen.

ERANSKINA			
ERAKUNDE HONI AURKEZTUTAKO KEXEI BURUZKO LABURPEN TAULA			
I. PROZESU JUDIZIALAK			
1.1 PROZESU ZIBILA			
Kexa	Gaia	Beste entitate bati igorritakoak	Emitza
01/330 esp.	Ados ez egotea prozesu zibil bateko erabaki judizialarekin		Kexa egileari jakinarazi zitzaion Nafarroako Arartekoak ezin dituela erabaki judizialak berraztertu
Nafarroako Parlamentuak bere antolamendu juridikoan barneratu ditu beste esparru batzuetan –autonomia erkidegoak, Estatua, Europako erakundeak (Europar Batasuna eta Europako Kontseilua, batez ere) edo nazioarteko erakundeak (Nazio Batuen Erakundea eta beste)– aitortu edo sortutako eskubideak. Halaber, jakin du aitzindaria izaten laguntza publikoaren premia duten gizarte-ko sektore garrantzitsuen aldeko eskubide sozialen aitorpenean, eta denborarekin eskubide horiek prestazio eta zerbitzu publiko efiziente bilakatu dira, zeinek aukera eman baitute, esate baterako, emakumearen bizi-itxaropena luzatzeko, Europar Batasun osoaren lehenengo postuan egoteraino, eta gizonaren bizi-itxaropena ere Europar Batasuneko lehenengo artean jartzeko.

Azken urteetan, autonomia-estatutuen zenbait erreforma onetsi izan dira. Valentziako, Kataluniar, Andaluziar, Aragoiko, Balear Uharteetako eta Gaztela eta Leongo estatutuak aldatu dira, horrenbestez. Erreforma horiek guztiek kasuko autonomia erkidegoko herritarren eskubideen eta betebeharren taula bat, gutxi-asko luzea, jaso dute, bai eta politika publikoen printzipio gidariak ere –guztiak ere enbor komuna dute, oro har–. Beste erreforma batzuk ere egiten hasiak dira, eta berandu baino lehen emanen dira argitara. Horiek ere, eskema berari jarraitu diote, herritarrentzako estatutu-eskubideen taula bat jaso baitute.

Ikuspegi juridiko hertsia batetik, eta Konstituzio Auzitegiak argitu duenez, eskubide eta printzipio gidari horien aldarrikapenak edo aitortpenak ez du exijitzen haiek nahitaez autonomia estatutu batean edo lege organiko batean sartzea. Hau da, ez da beharrezko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea, ez eta aldaketa horrek dakarren prozedura luzera jotzea edo Estatuarekin negoziatzen hasi eta haren borondatearen menpe egotea ere, Nafarroako herritarrak gozatu ahal izateko gutxienez egungo autonomia estatutuetan aitortuta ageri diren eskubideen eta politika publikoen printzipio gidarien maila beraz.

Sabai berera iristeko, edo are hura gainditzeko ere, nahikoa da Nafarroako Parlamentuak foru lege bat onestea, bere legegintza ahalmenaz baliatuta eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren indarrez esleituta dauzkan eskumenen barruan.

Horrela, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren goi ordezkaria den aldetik, legegintza ahalmen osoa dauka gaur egun autonomia erkidego batzuen autonomia estatutuetan aitortutako eskubide –sozialak gehienak–, betebeharrak eta printzipio gidari ia guztiak jasoko dituen foru lege bat onesteko. Bai eta haiek areagotzeko ere, eta, garrantzitsuena dena, haiek zehaztu eta zuzenean eraginkor bihurtzeko eta justizia auzitegiek exijitza koak bihurtzeko. Azken hori, izan ere, kasu askotan ez da gertatzen estatutu-eskubide edo eskubide autonomiko deitutako batzuekin, Konstituzio Auzitegiak jada zehaztu duenez.

Horrela, bada, Nafarroako herritarrak “belau-naldi berriko eskubide” deitutakoez guztiz baliatu ahal dira, beren parlamentuaren borondatez, hedapen eta zehaztapen gutxi-asko handiarekin eta, zalantzarik gabe, indar juridiko handiagoez.

Orain arte onetsitako estatutu-eskubideak jaso eta harmonizatuko dituen foru lege bat onestearekin, Nafarroa abangoardian jarriko litzateke herrita-

ren eskubide sozialen aitortpenari dagokionez, eta hori guztia lortuko litzateke Foru Hobetzea erreformatu gabe, eta soilik Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernu-maila altuaren erakusgarri. Eta eskubide horiek aitortzeko foru legearen maila formalaz baliatzea, estatutu erako lege organiko batek ematen duen bermea baino berme txikiagoa suertatu beharrean, funtsezko eta formazko bermerik onena da beste toki batzuetan sor daitezkeen eskubide berriak aurrerantzean eta modu dinamikoan sartu ahal izateko, baldin eta foru legegileak egokitzat jotzen badu eskubide horiek lehendik aitortutakoei gehitzea, esperientziak edo inguruabarrek gomendatzen dutenaren arabera.

II. NAFARROAKO HERRITARREN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO BALIZKO FORU LEGEAREN EDUKIA.

1. ESKUBIDE MOTAK.

Estatutuen erreforma zabalagoen eskema orokorrari jarraituz, aldeztu dugun foru legeak ederki bereiz litzake herritarren eskubideak eta betebeharrak eta politika publikoen printzipio gidariak.

Lehenengo bi kategorien bereizgarria izanen litzateke jurisdikzio eskudunaren aurrean zuzenean lotesleak izatea. Horrenbestez, exijitza koak diren egiazko eskubide eta betebeharrak dira, nahiz eta kasu batzuetan beren betekizunetan haiek zehaztuko dituen lege batean ezartzen denaren menpe egon. Igorpenaren ohiko teknika da hori, bestalde, eskubide subjektibo publikoak erregulatzeko berriki onetsitako beste lege arrunt batzuetan ere erabili dena.

Politika publikoen printzipio gidariek, berriz, Konstituzioak 39. artikulutik 52. artikulura bitarte ezartzen duen politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien ibilbidea jarraitzen dute, eta politika publikoak orientatzera eta botere publikoen ahalmen normatiboaz eta jardueraz informatzera mugatzen dira. Horrekin ez dugu esan nahi baliorik edo indar juridiko loteslerik ez dutenik, baizik eta, balio eta indar horiek edukita ere, haien garapenak eta aplikazioak foru erakundeen edo administrazio publikoen geroko ekintza zehatz bat eskatzen dutela. Nolanahi ere, erakunde eta administrazio horiek ezin izanen dira printzipio horietatik urrundu, eta ezin izanen dituzte printzipio horiek ahaztu beren jardun arruntean, eta haiek praktikara eramateko betebeharrak izanen dute herritarrekin dihardutenean.

2. ESKUBIDEEN TITULARRAK.

Eskubideen titularrei dagokienez, foru legeak, ildo orokorretan, eskubide subjektibo publikoen eskema komunari jarraitu beharko lioke. Alde bate-

tik, orokorrean, foru legeak eskubideen unibertsal-tasuna aitortuko luke, eta, horrenbestez, eskubide horiek gehienak, pertsona guztiei aplikatu beharko litzaizkieke; baina, bestetik, zenbait eskubide soilik Nafarroako herritarrentzat –hau da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5.1 artikulua arabera nafartasun politikoa dutenentzat– mugatuko litzuzke, batez ere arlo jakin batzuetako prestazio-dukia duten eskubide batzuk. Nolanahi ere, Nafarroako administrazio publikoen aurrean bermatuko litzateke Espainiako Atzerritarren Eskubide eta Libertateei buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan atzerritarrei aitortzen zaizkien eskubide eta libertateen aitortpena.

III. LANKETA ETA IZAPIDETZEA.

Txosten hau eta hari erantsitako dokumentua Nafarroako Arartekoaren erakundeko giza baliabideekin landu dira.

Behin txostenaren zirriborroa eginik, 2010eko maiatzaren 13an Nafarroako Gobernuari igorri zitzaion, ekainaren 15a baino lehen ekimenari buruzko balorazioen bat egin nahi bazuen ere, eta gaiaren inguruan zuen jarrera ezagutzeko. Epe hori iraganik, ez dugu erantzunik jaso.

IV. IRADOKIZUNA.

Aurrekoarekin guztiarekin bat, Nafarroako Parlamentuari iradokitzen zaio lan dezan eta, kasu bada, onetsi dezan foru lege bat, orain arte onetsitako autonomia estatutuak atal dogmatikoko antzeko terminoetan jasoko duena Nafarroako herritarren eskubideen eta betebeharren multzo bat.

Iradokizun hori zehazten laguntzeko, eta lagungarri eta tresna izateko xede hutsarekin, eranskin gisa gehitu dugu balizko foru lege proposamen bat izan litekeenaren zirriborroa, bilatzen duguna argitze aldera lagungarri gertatuko delakoan. Horrekin, Nafarroako Arartekoak ez du beretzat hartu nahi izan legegintzarako ekimena, eta ez du, ezta ere, baldintzatu nahi izan ez legebiltzarrak osatzen dituzten foru parlamentarien edo parlamentu-taldeek ekimen legitimoa, ez Nafarroako Gobernuaren ekimen legitimoa ere; eta ez du ezta ere, are gutxiago, interferitu nahi izan Nafarroako Parlamentuak, horrelakorik erabakitzen badu, arlo hau nahi duen gisara arautzeko daukan eskumen osoan.

ERANSKINA

ZIRRIBORROA, NAFARROAKO HERRITARREN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO BALIZKO FORU LEGE PROPOSAMEN BATERAKO

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako foru araubideak bere historia luzean ezaugarriren bat izan baldin badu, ezaugarri hori izan da nafarren eskubideak bermatzea erakunde politiko eta administratiboaren aurrean.

Foruak, batetik, Zuzenbidearen sinonimoa dira, eta, bestetik, herritarren eskubide eta libertate subjektiboaren sinonimoa, zeren eta haien izateak eta garapenak bidea eman baitute, lehenbizi, botere publikoen aurrean baliatu ahal diren eskubide subjektiboaren katalogo luze bat ezartzeko eta, bigarrenik, katalogo hori modu dinamikoan gaurkotzeko, ingurune hurbilean eskubide horiek izandako bilakaeraren arabera.

Nafarroako Parlamentuak jakin du beste esparru batzuetan aitortutako edo sortutako eskubideak bere antolamendu juridikoan sartzeko, esparru horiek edonongoak izanda ere –autonomia-erkidegoak, estatua, Europa edo nazioartea–, eta, horretaz gainera, jakin du aitzindaria izaten laguntza publikoaren premia duten gizarteko sektore garrantzitsuen aldeko eskubide sozialen aitortpenean, eta denborarekin eskubide horiek prestazio eta zerbitzu publiko efiziente bilakatu ditu.

Berriki autonomia estatutu batzuen erreformak onetsi dira. Valentziako, Kataluniako, Andaluziako, Aragoiko, Balear Uharteetako eta Gaztela eta Leongo estatutuak aldatu dira, horrenbestez. Erreforma horiek guztiek kasuko autonomia erkidego horien eskubideen eta betebeharren taula bat, gutxi-asko luzea, jaso dute, bai eta politika publikoen printzipio gidariak ere –guztiek ere enbor komuna dute, oro har–.

Ikuspegi juridiko hertsiki batetik, eta Konstituzio Auzitegiak argitu duenez, eskubide eta printzipio gidari horien aldarrikapenak edo aitortpenak ez du exijitzen haiek nahitaez autonomia estatutu batean edo lege organiko batean sartzeko. Hau da, ez da beharrezko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea, ez eta aldaketa horrek dakarren prozedura luzera jotzea edo Estatuarekin negoziatzen hasi eta haren borondatearen menpe egotea ere, Nafarroako herritarrak gozatu ahal izateko gutxienez egungo autonomia estatutuak aitortuta ageri diren eskubideen eta politika publikoen printzipio gidarien maila beraz.

Sabai berera iristeko, edo are hura gainditzeko ere, nahikoa da Nafarroako Parlamentuak foru lege bat onestea, bere legegintza ahalmenaz baliatuta eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren indarrez esleituta dauzkan eskumenen barruan.

Horrela, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkaria den aldetik, legegintza ahalmen osoa dauka gaur egun autonomia erkidego batzuen autonomia estatutueta aitortutako eskubide –sozialak gehienak–, betebeharrak eta printzipio gidariak guztiak jasoko dituen foru lege bat onesteko. Bai eta haiek areagotzeko ere, eta, garrantzitsuena dena, haiek zehaztu eta zuzenean eraginkor bihurtzeko eta justizia auzitegiek exijitzekoak bihurtzeko. Azken hori, izan ere, kasu askotan ez da gertatzen estatutu-eskubide edo eskubide autonomiko deitutako batzuekin, Konstituzio Auzitegiak jada zehaztu duenez.

Horrela, bada, Nafarroako herritarrak estatutu-eskubideak deitutakoen berdinak diren eskubideez guztiz baliatu ahal dira, beren parlamentuaren borondatez, hedapen eta zehaztapen gutxi-asko handiarekin eta, zalantzarik gabe, indar juridiko handiagoaz.

Foru lege hau onestearekin, Nafarroa abangoardian jarriko litzateke herritarren eskubide sozialen aitortzearen dagokionez, eta hori guztia lortuko litzateke Foru Hobetzea erreformatu gabe, eta soilik Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernu-maila altuaren erakusgarri. Eta eskubide horiek aitortzeko foru legearen maila formalaz baliatzea, estatutu erako lege organiko batek ematen duen bermea baino txikiagoa suertatu beharrean, bermerik eta bitartekorik onena da beste toki batzuetan sor daitezkeen eskubide berriak aurrerantzean eta modu dinamikoan sartu ahal izateko, baldin eta foru legegileak egokitzat jotzen badu eskubide horiek lehendik aitortutakoei gehitzea, esperientziak edo inguruabarrek gomendatzen dutenaren arabera.

Estatutuen erreforma zabalagoen eskema orokorrari jarraituz, foru legeak ederki bereizten ditu herritarren eskubideak eta betebeharrak eta politika publikoen printzipio gidariak. Lehendabiziko bi kategoriak zuzenean lotesleak dira jurisdikzio eskudunaren aurrean; horrenbestez, exijitzekoak diren egiazko eskubide eta betebeharrak dira, nahiz eta kasu batzuetan beren betekizunetan haiek zehaztuko dituen lege batean ezartzen denaren menpe egon; igorpenaren ohiko teknika da hori, bestalde, berriki onetsitako beste lege arrunt batzuetan ere erabili dena. Politika publikoen printzipio gidariak, berriz, Konstituzioak 39. artikulutik 52. artikulura bitarte ezartzen dituen politika

sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien ibilbidea jarraitzen dute, eta politika publikoak orientatzera eta botere publikoen ahalmen normatiboaz eta jardueraz informatzera mugatzen dira. Horrekin ez dugu esan nahi baliorik edo indar juridiko loteslerik ez dutenik, baizik eta, hura edukita ere, haien garapenak eta aplikazioak foru erakundeen edo administrazio publikoen geroko ekintza zehatz bat eskatzen dutela. Nolanahi ere, erakunde eta administrazio horiek ezin izanen dira printzipio horietatik urrundu, eta ezin izanen dituzte printzipio horiek ahaztu beren jardunean, eta haiek praktikara eramateko betebeharrak izanen dute.

Eskubideen titularrei dagokienez, foru legeak, ildo orokorretan, eskubide subjektibo publikoen eskema komunari jarraitzen dio. Alde batetik, orokorrean, foru legeak eskubideen unibertsaltasuna aitortzen du, eta, horrenbestez, eskubide horiek gehienak, pertsona guztiei aplikatu beharko zaizkie; baina, bestetik, zenbait eskubide soilik Nafarroako herritarrentzat –hau da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5.1 artikulua arabera nafartasun politikoa dutenentzat– mugatzen ditu, batez ere arlo jakin batzuetako prestazio-erakundeak duten eskubide batzuk. Nolanahi ere, Nafarroako administrazio publikoen aurrean bermatzen da Espainiako Atzeritarren Eskubide eta Libertateei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan atzeritarrei aitortzen zaizkien eskubide eta libertateen aitortpena.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Eskubideak eta printzipio gidariak.

1. Eskudunak diren gaietan, Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek sustatuko dute erabat baliatu daitezela foru lege honetan aitortzen diren eskubide subjektibo publikoak, bai eta honako beste arau hauetan aitortutako eskubide eta libertateak ere: Konstituzioa, Europar Batasunaren Ituna eta gainerako arau osagarriak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Gizakiaren Eskubideak eta Oinarrizko Libertateak Babesteko Europako Konbentzioa, eskubide zibil eta politikoei eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko hitzarmenak, Europako Gizarte Gutuna, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta Espainiak sinatuta daukan gainerako hitzarmenak eta itunak, eskubide eta libertate publikoak aitortzen eta bermatzen dituztenak.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek baldintza batzuk sustatuko dituzte herritarren eta herritar horien taldeen libertatea eta berdintasuna egiazkoak eta efektiboak izan daite-

zen, eta erraztasunak emanen dituzte pertsona guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten. Halaber, sustatuko dute gizarte eragileek eta gizarte zibil osoak gai publikoetan parte har dezaten.

2. artikulua. Eskubideen eta printzipio gidarien norainokoa eta interpretazioa.

1. Foru lege honen I. tituluari aitortutako eskubi-deak zuzenean lotzen dituzte Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko guztiak. Nolanahi ere, exijitzekoak izanen dira foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerakoetan xedatutakoaren arabera.

2. Foru lege honetako II. tituluari aitortutako betebeharrak partikular guztiak lotzen dituzte, nafartasun politikoa izan ala ez izan.

3. Nafarroako foru erakundearen eta administrazio publikoaren araugintza-ahalmenean eta jardunean kontuan hartuko dira III. tituluari aitortutako diren politika publikoaren printzipio gidarien aitortpena, errespetua eta babesa. Partikularrek printzipio horiek soilik jurisdikzio eskudunean exijitu ahalko dituzte, aplikatzekoak diren legeek eta haiek garatzeko gainerako xedapenek ezarritakoaren arabera.

4. Foru lege honetan jasotako eskubide subjektibo eta printzipio gidari guztiak interpretatu, garatu eta aplikatzerakoan, haien baliatze zabalena eta eraginkortasunik handiena bilatuko dira.

5. Foru lege honetan jasotako eskubide subjektibo eta printzipio gidarietako bakarra ere ezin izanen da interpretatu, garatu edo aplikatu Konstituzioan, lege organikoetan eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmen eta itunetan aitortutako eskubideak edo printzipioak murriztu edo mugatzeko moduan.

3. artikulua. Bazterkeria debekatuta dago.

1. Nafarroako foru erakundeak eta administrazio publikoek pertsona guztien berdintasuna sustatuko dute Nafarroako Foru Komunitateko toki guztietan.

2. Era guztietako bazterkeriak debekatuta daude foru lege honetan jasotako eskubideez baliatzerakoan, betebeharrak betetzerakoan eta zerbitzuak ematerakoan. Berariaz, debekatuta dago sexu, arraza, kolore, jatorri etniko edo sozial, ezaugarri genetiko, hizkuntza, kultura, erlijio edo sinismen, iritzi politiko edo beste edozein gisatako, sorleku, ezgaitasun, adin, sexu orientazio edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatikoa bazterkeria.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutako bazterkeriaren debekua ez da eragozpena izanen premia duten sektore, talde edo pertsonen onerako ekin-tza positiboak egiteko, horiek legeetan jasota baldin badaude, behar bezala justifikatuta badaude eta Konstituzioak babestutako balio edo kolektiboen zerbitzuan jarritako arrazoi objektiboen alde ezarri badira.

4. artikulua. Titularrak.

1. Pertsona guztiak dira foru lege honetako honako artikuluetan aitortutako eskubideen titularrak, betiere arau horietan eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritakoaren arabera: 5.; 7. eta 8.1 artikulua; 9.; 10.; 11.; 12.; 13. eta 15.1 eta 15.2 artikulua; 17.; 18.; 19.; 20.; 21.; 22.; 23.; 24.; 25.; 26.; 27. eta 28. artikulua.

2. Honakoak izanen dira foru lege honetako 6., 8.2, 14. 15.3 eta 16. artikuluetan jasotako eskubideen titularrak: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5. artikulua arabera nafartasun politikoa izan eta kasuko legeetan exijitzen diren gainerako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak.

3. Nafarroako administrazio publikoaren aurrean, atzeritarrek Espainiako Atzeritarren Eskubide eta Libertatei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa eta aplikatzekoak diren gainerako legeek aitortutako eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

4. 2. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, beste pertsona batzuk ere izan ahalko dira foru lege honek nafartasun politikoa dutenei aitortzen dizkien eskubideen titularrak, horretarako emandako legeek hori ezartzen baldin badute.

5. Pertsona guztiek izanen dituzte foru lege honetako 29. artikuluan ezarritako betebeharrak.

I. TITULUA Eskubideak

5. artikulua. Pertsonen eskubideak.

Pertsona orok du duintasunez, askatasunez, segurtasunez eta autonomiaz bizitzeko eskubidea, ustiaria izan gabe, tratatu txarrik jaso gabe eta edozein gisatako bazterkeriarik jaso gabe, eta eskubidea du, orobat, gainerakoek errespetatuta izateko eta bere nortasuna eta gaitasun pertsonala libreki garatzeko.

6. artikulua. Familien arloko eskubideak.

Nafartasun politikoa daukatenez eskubidea dute, legeetan eta erregelamenduetan ezarritako baldintzen arabera, gizarte prestazioak eta laguntza publikoak jasotzeko familiako ardurei erantzun ahal izateko eta lana eta familia uztartzeko.

7. artikulua. Adingabeen eskubideak.

1 Adingabe guztiek eskubidea dute babestuak izateko eta beren ongizaterako behar diren zainketak jasotzeko. Beren iritzia libreki adierazi ahal dute eta iritzi hori kontuan hartuko da haiengan eragina duten gaitan, adinaren eta heldutasunaren arabera.

2 Adingabeek eskubidea dute behar diren babesa eta laguntza integrala lehentasunez jasotzeko, beren nortasuna garatze aldera eta familia-, eskola- eta gizarte-ingurune ongizatea lortze aldera; halaber, eskubidea dute legeek ezarritako gizarte prestazioak jasotzeko.

3. Adingabe orok eskubidea du aldizka hartueman pertsonalak eta zuzeneko kontaktuak izateko bere aitarekin eta bere amarekin, horiek bere interesen aurkakoak ez diren bitartean.

4. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek bermatuko dute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubideez balia ahal izatea.

8. artikulua. Adineko pertsonen eskubideak.

1. Adineko pertsona guztiek honakoetarako eskubidea dute:

a) Duintasunez bizitzeko eskubidea, errespetuz artatuak izateko eskubidea eta adinarengatik baztertuak ez izateko eskubidea.

b) Independentek izateko eskubidea eta beren bizitzaren gaineko kontrola izateko eskubidea.

c) Beren erkidegoko bizitza sozial, kultural eta politikoan parte hartzeko eskubidea.

2. Nafartasun politikoa duten pertsonen eskubidea dute Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko eskudunengandik behar adinako babesa eta arreta jasotzeko, horren bidez beren autonomia pertsonala eta zahartze aktiboa sustatu ahal izateko eta, horrenbestez, bizimodu independentea eta ongizate sozial eta banakakoa lortzeko; halaber, eskubidea dute arreta gerontologiko egokia lortzeko osasunaren arloan, eta gizarte- eta laguntza-arloetan, eta behar adinako prestazio eta pentsioak jasotzeko legeetan ezarritako moduan.

9. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko aukeren eta eskubideen berdintasun efektiboa.

1. Gizonen eta emakumeen aukeren berdintasun efektiboa bermatuko da arlo publiko eta pribatu guztietan.

2. Emakumeek eta gizonen eskubide bera dute beren nortasuna eta gaitasun pertsonala libreki

garatzeko; integritate fisiko eta moralerako; duintasunez, segurtasunez eta autonomiaz bizitzeko, esplotaziorik, tratu txarrik edo bazterkeriarik jaso gabe.

3. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren neurriak ezarriko dituzte emakumeak generoko indarkeriaren aurka babesteko.

10. artikulua. Minaren tratamendu egokia jasotzeko eskubidea.

1. Pertsona guztiek eskubidea dute beren borondatea aurrez adierazteko, jasota uzte aldera jaso ditzaketen edo errefusatu nahi dituzten tratamendu medikoei buruzko jarraibideak. Jarraibide horiek, izan ere, errespetatu egin beharko dira legeek ezarritako moduan, eta osasunaren arloko langileek bereziki errespetatuko dituzte borondatea pertsonalki adierazteko baldintzarik betetzen ez denean.

2. Nolanahi ere, pertsona guztiek eskubidea dute minaren tratamendu egokia eta zainketa aringarri integralak jasotzeko.

11. artikulua. Osasunaren arloko eskubideak.

1. Bermatuta dago pertsona guztiek beren osasuna osasun sistema publikoaren bitartez babesteko daukaten eskubidea.

2. Pertsona guztiek eskubidea dute dagozkien osasun prestazioak eskuratu eta lortzeko, sistema publikoko osasun zerbitzuen zorroaren arabera, beren osasun egoera zaindu edo berreskuratze aldera.

3. Pertsona guztiek eskubidea dute osasun zerbitzu publikoak berdintasunez eta kalitatez jasotzeko, arauetan ezarritako moduan.

4. Osasun publikoaren erabiltzaileek eskubidea dute sendagilea eta osasun zentroa libreki hautatzeko, arauetan ezartzen diren termino eta baldintzetan.

5. Pertsona guztiek, osasun zerbitzu publiko eta pribatuei dagokienez, honako eskubideak daukate, arauetan ezartzen diren moduan eta arauetan ezarritako baldintza eta betekizunekin:

a) Osasun sistemaren zerbitzu eta prestazioei buruzko eta dauzkaten eskubideei buruzko informazioa jasotzeko.

b) Beren gaixotasun-prozesuei buruz eta tratamendu medikoei eta haien arriskuei buruz behar beste informatuta egoteko, haiek aplikatu aurretik.

c) Edozein esku-hartze medikotarako beren baimena emateko.

d) Beren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatua izateko, inongo tratamendu edo praktika degradatzailearik pairatu behar izan gabe.

e) Aholku genetikoak eta medikuntza igarlea jasotzeko.

f) Zerbitzuak eskuratzeko eta tratamenduak aplikatzeko gehieneko arrazoizko denbora bat bermatuta izateko.

g) Beren prozesuei buruzko bigarren iritzi fakultatiboa jasotzeko, eskatuz gero.

h) Beren buruarengan eragina duten erabaki terapeutikoak hartzen modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eskubidea; bereziki, tratamendu-aukera bat baino gehiago dagoen kasuetan.

i) Tratamenduari uko egiteko, salbu eta hori legez exijitzekoa denean.

j) Beren historia klinikoa eskuratzeko.

k) Intimitaterako eta beren osasunari eta ezauzgarri genetikoei buruzko datuen konfidentzialtasunerako.

l) Laguntza geriatriko espezializatua jasotzeko.

6. Pertsona guztiak eskubidea dute informazio epidemiologikoa jasotzeko eta osasun administrazioak epidemiak direla-eta neurriak eta programak ezartzeko, baldin eta horiek, unean-unean, eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoaren arabera, egokitzat jotzen badira osasuna babesteko osasun publikorako arrisku kolektiboetatik, bereziki transmititzekoak diren gaixotasunen, elikagaien segurtasunaren, lan osasunaren eta ingurumen-osasunaren arloetan.

7. Buru-gaixotasunak dituzten pertsonak, gaixotasun kronikoak eta baliabiztasuna dakarten gaixotasunak dituztenek, eta osasunaren arloan arriskukotzat jotzen diren talde berezietakoak direnek eskubidea izanen dute lehentasunezko jarduketarako eta programetarako.

12. artikulua. Hezkuntzaren arloko eskubideak.

1. Pertsona guztiak eskubidea dute hezkuntza iraunkorra eta kalitatezkoa jasotzeko, eta hartara berdintasun baldintzetan sartzeko.

2. Gurasoek bermatuta daukate seme-alabek beren sinismenen arabera erlijio-heziketa eta heziketa morala jasotzeko duten eskubidea. Titularitate publikoko eskoletako irakaskuntza estatua- ren izaera ez-konfesionalaren arabera izanen da.

3. Guztiak eskubidea dute hezkuntza zentro publikoetara berdintasun efektiboko baldintzetan eta bazterkeriarik gabe sartzeko.

4. Ikasleek eskubidea dute, legeetan ezarritako moduan eta baldintzetan, ikasteko laguntza publikoak eta beka jasotzeko, dauzkaten hezkuntza-betekizunak asetzeko, eta goi mailako hezkuntza maila berdintasun baldintzetan iristeko, betiere beren baliabide ekonomiko, gaitasun eta lehentasunen arabera.

5. Hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonak eskubidea dute hezkuntza sistema orokorrean modu efektiboan integratzeko, legeetan ezarritakoaren arabera, eta kasu bada, hezkuntza egokituaren bitartez.

6. Pertsona guztiak eskubidea dute lanbide heziketa bat jasotzeko, legeetan ezarritako moduan.

7. Aitortzen da pertsona helduek hezkuntza iraunkorrerako eskubidea dutela, legez ezartzen den moduan.

8. Hezkuntza komunitateko kideek eskubidea dute eskola-gaietan eta unibertsitate-gaietan parte hartzeko, legez ezarritako terminoetan.

13. artikulua. Kulturaren arloko eskubideak.

1. Pertsona guztiak eskubidea dute baldintza ez baztertzailaetan kulturarako sarbidea izateko, Nafarroako ondare historiko eta artistikoaz gozatzeko eta sormen artistiko, zientifiko eta tekniko babestua izateko eta libreki garatzeko, banaka nahiz taldeka.

2. Pertsona guztiak eskubidea dute Nafarroako administrazio publikoek beren integrazio kulturala susta dezaten.

14. artikulua. Gizarte zerbitzuen eta prestazioen arloko eskubideak.

1. Nafartasun politikoa duten pertsonak honako eskubideak izanen dituzte –haztertzailaetan sartzeko, prestazio horiei buruzko informazioa jasotzeko eta, behar adinako informazioa izan ondoren, berengan eragin pertsonala duen edozein jarduketarako baimena emateko.

a) Gizarte zerbitzuen sistema publiko bateko prestazioetarako baldintza ez baztertzailaetan sartzeko, prestazio horiei buruzko informazioa jasotzeko eta, behar adinako informazioa izan ondoren, berengan eragin pertsonala duen edozein jarduketarako baimena emateko.

b) Beren egoerari eta, kasu bada, beren premia sozialei buruzko balorazio bat edukitzeko, eta balorazio horren arabera banakako laguntza plan bat edukitzeko; hori guztia arrazoizko denbora batean.

c) Mendekotasuneko egoeran daudenean, autonomia pertsonala bermatzeko behar diren prestazio publikoak lortzeko, integrazio sozio-profesionalerako eta erkidegoko bizitza sozialean parte hartzeko. Mendekotasuna duten pertsonak beren kargura dauzkaten familiek laguntza publiko baterako eskubidea izanen dute.

d) Ezgaitasun graduren bat dagoenean, tratuko eta aukeren berdintasunerako eskubidea; bizitzaren edozein arlotan irisgarritasuna izateko eskubidea; bai eta eguneroko bizitzako jardueretan autonomia pertsonalari eusteko eta hezkuntzan, lanean eta gizartean guztiz integratzeko behar diren prestazio, kalitatezko zerbitzu eta laguntza publikoetarako eskubidea ere.

e) Pobreziako edo premiako egoeran izatekoan, oinarrizko errenta bat eskuratzeko eskubidea, bizimodu duina eta gizarteratzea bermatzeko. Oinarrizko errenta hori familiaren osaketaren edo inguruabarren arabera aldatuko da.

2. Hirugarren gizarte-sektoreko antolamenduek eskubidea dute beren eginkizunak betetzeko parte-hartze eta lankidetzaren esparruetan.

15. artikulua. Prestaziorako eskubideak, lan arloari eta okupazioari dagokienez.

1. Konstituzioan jasota dagoen lanerako eskubideari dagokionez, eta legeetan ezarritakoaren arabera, bermatuta egon da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enplegu-zerbitzu publiko eta doako batera berdintasun baldintzetan sarbidea izateko eskubidea.

2. Langileek eskubidea izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko prestakuntzako eta lanbide-sustapenerako zerbitzuetara doako sarbidea izateko.

3. Nafartasun politikoa izan eta lan merkatutik kanpo dauden pertsonen —edo hartara sartzerik izan ez dutelako edo hartan berriz sartzeari ez dutelako—, baldin eta bizirauteko baliabide propioak ez badute, eskubidea izanen dute kotizazio gabeko prestazio eta baliabide aringarriak jasotzeko, edo lan munduan sartzeko gizarte erantzukizun korporatiboko planetan parte hartzea eskatzeko, foru lege batean ezartzen den moduan.

16. artikulua. Etxebizitzaren arloko eskubideak.

1. Nafartasun politikoa duten pertsonen eskubidea dute etxebizitza duin, egoki eta irisgarria edukitzeko, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren arabera eta ingurune eta paisaia egokietan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak etxebizitzarako sarbidea izateko eskubidearen gauzatzea sustatuko du, bereziki baliabiderik gabeko pertsonen, gazteen, aitortutako ezgaitasuna dutenen eta arreta edo babes publiko handiagoak justifikatuta dauden bestelako pertsona eta familien kasuan.

17. artikulua. Hornidura publikoen eta erabilera publikoko ekipamenduen arloko eskubideak.

Pertsona guztiek eskubidea dute, baldintza ez-baztertzaileretan eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan, hornidura publikoak eta erabilera publikoko ekipamendu kolektiboak erabiltzeko, kasuan kasuko jarduera arautzen duten legeen arabera.

18. artikulua. Lurraldearen antolamenduen eta hirigintzaren arloko eskubideak.

Pertsona guztiek honakoetarako eskubidea dute:

a) Nafarroako administrazio publikoek lurraldearen antolamenduari eta hirigintzaren antolamenduari eta haren ingurumen-ebaluazioari buruz daukaten informazioa lortzeko eskubidea, bai eta xedapenen edo egintza administratiboaren kopia edo ziurtagiria jasotzeko ere, hirigintzaren arloko legeetan ezarritako moduan.

b) Administrazio eskudunaren eskutik informazio osoa, idatzizkoa eta arrazoizko epe batean jasotzeko eskubidea, finka jakin bati aplikatzekoak zaizkion araubideari eta hirigintza-baldintzei buruz, hirigintzaren arloko legeetan ezarritako moduan.

c) Lurraldearen antolamenduko edo hirigintzaren antolamenduko eta exekuzioko tresnak eta haien ingurumen-ebaluazioa prestatu eta onesteko prozeduretan parte-hartze efektiboa izateko eskubidea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak aurkeztuz; eta Administrazioaren eskutik erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea, hirigintzaren arloko legeetan ezarritakoaren arabera.

d) Ekintza publikoaz baliatzeko eskubidea Nafarroako administrazio publikoen aurrean, lurraldea eta hirigintza antolatzekeko determinazioak errespetarazteko, bai eta haiek biltzen dituzten tresnetako ingurumen-ebaluazioko prozeduretatik eta haiek gauzatzeko proiektuetatik heldu diren erabakiak errespetarazteko ere, hirigintzaren arloko legeetan ezarritako moduan.

e) Lurraldea eta hirigintza antolatzekeko ekimenak egiteko eskubidea, hirigintzaren arloko legeetan ezarritako terminoetan; eskubidea dute, halaber, ekimen horiek hasiera batean onets daitezzen eta

informazio publikoan jar daitezzen, ezertan kendu gabe amaieran administrazio eskudunak behin betiko onespeneraren ekintzan xedatzen duena.

19. artikulua. Ingurumenaren inguruko eskubideak.

1. Pertsona guztiek eskubidea dute ekologikoki orekatua eta iraunkorra den eta onasuna errespetatzen duen ingurune batean bizitzeko, legeek ezartzen dituzten estandarrekin eta babes-mailekin.

2. Guztiek eskubidea dute baliabide naturalez eta babestutako ingurune naturalez berdintasun baldintzetan gozatzeko.

3. Ingurumenerako eskubide hori dibertsitate biologikoa eta prozesu ekologikoak, ondare naturala, paisaia, ura, airea eta baliabide naturalak egoki babestuz bermatzen da.

4. Pertsona guztiek eskubidea dute kutsadura modu desberdinak direla-eta babestuak izateko, legez erabakitako estandarrekin eta mailekin.

5. Bereziki, pertsona guztiek eskubidea dute beren etxebizitzetan onartutako gehieneko mugak gainditzen duen zaratarik edo gisa guztietako immisio kutsagarririk ez izateko.

6. Pertsona guztiek eskubidea dute botere publikoek ingurumenari buruz daukaten informazioa eskuratzeko, legeetan ezarritako moduan.

7. Aitortzen da ekintza publikoaz baliatzeko eskubidea, Nafarroako administrazio publikoei exijitzeko ingurumena, naturguneak, paisaia eta Nafarroako ondare naturala babesteko legeak bete daitezela. Ekintza hori baliatu ahalko da ingurumenaren arloko legeetako babes neurriak aplikatzeko ezarritako epeak bete arte.

20. artikulua. Ur-hornidurari buruzko eskubideak.

Pertsona guztiek eskubidea dute, garapen iraunkorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan, ur-baliabidea modu eraginkor eta efizientean erabiltzeko eta ur-hornidura beren eguneko eta etorkizuneko beharrei erantzuteko behar diren kopuruan eta kalitatean edukitzeko, bai giza kontsumorako, bai Nafarroako egitura-teea eta lurralde-oreka lortzeko, interes orokorrak ezartzen dituen gain bestelako murriztapenik izan gabe.

21. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak.

1. Pertsona guztiek, ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileak diren aldetik, honako eskubideak daukate:

a) Osasuna eta segurtasuna babestua izateko eskubidea.

b) Produktuen eta zerbitzuen ezaugarriei eta prezioei buruzko egiazko informazioa eta informazio ulergarria izateko eskubidea.

c) Erositako produktuen eta kontratatutako horniduren bermeen araubide bat izateko.

d) Beren interes ekonomiko eta sozial legitimoak babestuak izateko gehiegikeriazko, utzikieriazko edo iruzurrezko jokabideen aurrean.

e) Beren eskubideak babestu eta defendatuko dituen sistema baterako sarbidea edukitzeko.

f) Informatuak izateko eta zuzenean edo beren ordezkarien bidez parte hartzeko Nafarroako administrazio publikoetan, legez ezartzen den moduan.

g) Beren eskubideak eta legezko betebeharrak direla-eta prestakuntza eta informazioa jasotzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaileek elkartzeko duten eskubidea sustatuko du.

22. artikulua. Kalitatezko zerbitzu publikoak izateko eskubidea.

1. Pertsona guztiek eskubidea dute berdintasun baldintzetan eskuratzeko bai zerbitzu publikoak bai interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ere, bai eta haiengandik tratu pertsonalizatua eta egokia jasotzeko ere.

2. Nafarroako administrazio publikoek zerbitzu publikoetara sartzeko baldintzak eta kalitate estandarrik finkatuko ditu, haien prestazio-araubidea alde batera utzita; kudeaketarako eredu berritzaileak ezarriko dituzte, kalitatea modu jarraituan hobetzeko eta ebaluatzeko; eta zainduko dute interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen prestazioa kalitatezkoa izan dadila.

23. artikulua. Administrazio egokia izateko eskubidea.

Beraiengan eragina duten gaietan, pertsona guztiek honako eskubideak daukate Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan:

a) Kortesia, diligentzia eta konfidentzialtasunez artatuak izateko eskubidea.

b) Eskariak, eskaerak, erreklamazioak eta errekursoak aurkezteko eskubidea.

c) Beren gaiak modu inpartzial eta objektiboan landuak izateko eskubidea, sorlekua, sexua, adina, arraza, erlijioa, iritzia edo beste edozein

baldintza edo inguruabar pertsonal edo soziala dela-eta bazterkeriarik pairatu gabe.

d) Nafarroako administrazio publikoen jarduera uneoro hura justifikatzen duten helburuetarako proportzionatua izateko eskubidea.

e) Beraiengan eragina duten erabakietan guztizko parte-hartzea izateko eskubidea.

f) Beren eskubideetan, interes legitimoetan eta betebeharetan eragina izan dezaketen jarduera administratiboaren alderdiei buruzko informazio argi, erraz eta ulergarria eskatzeko eta lortzeko eskubidea, bai eta ondasun eta zerbitzu publikoen erabilerari buruzko eskubideak ere, betiere eskatzailearen nortasuna isilpean izanen dela bermatuz.

g) Dagozkien gaiak arrazoizko epe batean aztertuak eta ebatziak izateko eskubidea, eta Administrazioaren erabaki bat berariaz jasotzeko eskubidea, legez ezarritako epean.

h) Kaltegarri gerta daitekeen banakako neurri bat ezarri baino lehen, entzunak izateko eskubidea.

i) Dagokien espediente administratiboa aztertzeko eskubidea, baina legezko interesak, konfidentzialtasuna eta merkataritzako eta lanbideko sekretua errespetatuz.

j) Izapidetzen ari diren administrazio-espedienteak aztertzeko eskubidea, baldin eta haietan interesduntzat jotzen badira, eta administrazioaren artxibo eta erregistroak aztertzeko eskubidea ere bai, indarreko arauetan ezarritakoaren arabera, edozein dela ere espedientearen euskarria. Eskubide honek agirien kopia eta ziurtapenak egiteko eskubidea dakar berarekin, betiere legez ezarrita dauden tasa edo prezioak ordainduz gero, horrelakorik baldin badago.

k) Erabaki arrazoitu bat jasotzeko eskubidea.

l) Herritarrekin lotutako prozedura administratiboak burokratikoegiak edo konplexuegiak ez izateko eskubidea.

m) Identitatea egiaztatu ondoren, idazkiak eta dokumentuak kasuko erregistro administratiboetan aurkezteko eskubidea, bai eta aurkezpen horren egiaztapena jasotzeko eskubidea ere.

n) Bulego publikoetara pertsonalki ez joateko eskubidea, salbu eta betebeharrak hori lege mailako arau batean ezarrita dagoenean.

o) Kasuko prozedurari aplikatzekoak diren arauetan exijitzen ez diren dokumentuak ez aurkezteko eskubidea, dokumentu horiek jada Administrazioaren esku daudenean.

p) Administrazioak publikotasunaren printzipioa bete-betean errespetatuz jardun dezala eskatzeko eskubidea, legeek herritarrei esleitzen dizkieten eskubideak bermatzeko.

q) Kasua bada, ezartzen zaizkion zehapenak, egindako arau-haustearekin proportzionatuak izateko eskubidea.

r) Eskatzeko eskubide konstituzionalaz baliatze eskubidea, hura arautzen duen lege organikoari jarraituz.

s) Zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzko iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubidea.

t) Eragindako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

24. artikulua. Tributu-administrazioaren aurreko eskubideak.

Zergadun guztiek honako eskubideak dituzte Nafarroako administrazio publikoen aurrean harreman juridiko-tributarioak direla eta.

a) Beren tributu-betebeharrak betetzeari buruzko informazioa eta laguntza jasotzeko eskubidea, haien edukiari eta irismenari dagokionez, eta tributu gaiei buruzko kontsultak egiteko eskubidea.

b) Eskubidea dute itzul dakizkien zuzenez kontrat egindako diru-sarrerak eta ofizios tokatzen direnak, eta orduan legeetan aurreikusten den berandutza interesa paga dakien, hartarako errekerimendurik egin gabe ere.

c) Eskubidea dute paga dakien, legez agintzen duen moduan, tributu zor baten betearaztea eteteke jarri dituzten abal eta beste bermeen kostua, epai edo administrazio ebazpen irmo batek zor hori zuzenez kontraktat deklaratu bezain laster.

d) Partedun diren prozeduren tramitazioa zertan den jakiteko eskubidea.

e) Interesdunak diren tributu kudeaketako prozedurak tramitatzeko ardura duten agintari eta langileen identitatea ezagutzeko eskubidea.

f) Aurkezten dituzten aitopenen ziurtagiria eta kopia eskatzeko eskubidea.

g) Lehendik aurkezturik dituzten eta Administrazioak bere esku dauzkan dokumentuak berriz ez aurkezteko eskubidea.

h) Eskubidea dute errespeta dadin Tributu Administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izatea. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak modu efektiboan aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hiruga-

rrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusiriko kasuetan salbu.

i) Eskubidea dute tributu administrazioaren langileek behar bezalako errespetuz eta begiramenenez trata ditzaten.

j) Tributu administrazioaren egintza batek tributudunak parte hartzea behar badu, tributudunak eskubidea du arinena zaion moduan egin dadin.

k) Eskubidea dute alegazioak egin eta dokumentuak aurkezteko, eta erakunde eskudunak horiek kontuan hartzeko kasuan kasuko ebazpen proposamena idazterakoan.

l) Eskubidea dute entzunaldiaren tramitean mintzatzeko, ebazpena eman baino lehen.

m) Eskubidea dute informazioa jasotzeko erosi edo eskualdatuko diren ondasun higiezinak duten balioaren gainean.

n) Eskubidea dute tributu ikuskaritza konprobatzen edo ikertzen hastean, informazioa jasotzeko konprobatze-ikertze horien izaera eta irispidearen gainean, eta bai ekintza horiek dirauteino dituzten eskubide-betebeharren gainean eta ekintza horiek legeak agintzen dituen epeetan egin daitezten.

ñ) Arau-hausteen eta zehapenen kasuan eta zerga-kudeaketaren arloko eragiketa berekietan behar diren bermeak edukitzeko eskubidea; horiek, izan ere, behar bezala segurtatuta egonen dira errekurtsioak eta aurkapen ekonomiko-administratiiboak aurkeztearen bidez, legeek ezartzen duten moduan.

25. artikulua. Datu pertsonalak babesteko eskubidea.

1. Pertsona guztiak eskubidea dute Nafarroako administrazio publikoen eta haiekin lotutako edo haien menpeko ente eta enpresen eta haiekin lan egiten duten edo lankidetzan diharduten enpresa pribatuen eskumenekoak diren fitxategi eta baseetan jasotako datu pertsonalak babestuta izateko.

2. Halaber, eskubidea dute beren datu pertsonaletara sartzeko eta haiek aztertzeke, bai eta haiek zuzendu eta deuseztatzeko ere.

26. artikulua. Hizkuntza eskubideak.

Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoekiko eta administrazio publikoekiko harremanetan pertsona guztiak gaztelania edo euskara erabiltzeko eskubidea dute, euskararen erabilera arautzen duen Nafarroako foru legerian ezarritako ari jarraikiz.

27. artikulua. Justizia.

Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuen kalitatea eta biktimekiko arreta bermatuko ditu –bereziki ekintza terroristen edo generoko indarkeriaren kasuetan–, bai eta doako justizia eskuratzea ere.

28. artikulua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarbidea.

Aitortzen da pertsona guztiak eskubidea dutela teknologia berriak eskuratzeko eta erabiltzeko eta jakintzaren, informazioaren eta komunikazioaren gizartean parte-hartze aktiboa izateko, legeek ezartzen dituzten bitarteko eta baliabideen bitartez.

II.TITULUA Betebeharrak

29. artikulua. Betebeharrak

Pertsona guztiak honako betebeharrak dauzkate:

a) Errespetatzea gainerako pertsonak beren eskubideez modu legitimoan eta gehiegikeriarik gabe balia daitezela.

b) Gastu publikoari eusten laguntzea, beren gaitasun ekonomikoaren arabera.

c) Ingurumena zaindu eta babestea.

d) Baliabide naturalak, naturgune babestuak eta paisaiak erantzukizunez erabiltzea, eta haiek narria daitezen saihestea.

e) Natur ondarea zaintzen eta kutsadura modu desberdinak deuseztatzeko jarduketak egiten laguntzea, haiek etorkizuneko belaunaldietarako zaindu eta kontserbatzeko.

f) Hirigintzaren eta ingurumenaren arloko legeek baimentzen ez dituzten ekintzak ez egitea edo jarduerak ez garatzea.

g) Hondamendi eta larrialdi egoeretan laguntza ematea.

h) Herritarrek hauteskunde-administrazioan parte hartetik heldu diren betebeharrak betetzea, hauteskunde-legeetan ezarritakoa errespetatuz.

i) Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileengana errespetuz zuzentzea.

j) Jabari publikoko ondasunak, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak errespetatzea eta haien erabilera arrazoizkoa eta egokia egitea, betiere haien ezaugarrien, eginkizunaren eta zerbitzu-gaitasunaren arabera; eta ondasun publikoak hondatu edo urratzeko arriskua duen inongo ekintzarik ez egi-

tea, bai eta aplikatzekoak diren legeak ez urratzea ere.

k) Prestazio eta zerbitzu publikoak erantzukizunez eta elkartasunez erabiltzea eta haien funtzio-namendurako laguntzea, betiere kasu bakoitzean ezarritako arauak, bai eta gainerako erabiltzaileak eta haiek emateaz arduratzen diren langileak ere, behar bezala errespetatuz.

l) Ondare publikoa errespetatu eta zaintzea, bereziki hiri ondarea, ondare kulturala eta ondare historiko-artistikoa, eta haiek zaintzen eta gozatzeko laguntzea.

m) Legeak ezartzen duen beste edozein.

III. TITULUA

Politika publikoen printzipio gidariak

30. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Konstituzioak politika sozialerako eta ekonomikorako ezartzen dituen printzipio gidariak ezertan kendu gabe, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroako toki entitateen politika publikoak titulu honetan jasotako printzipio gidarien arabera orientatuko dira. Beren eskumenetan dihardutela, Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren neurriak sustatu eta ezarriko dituzte printzipio gidarien erabateko eraginkortasuna bermatzeko.

2. Titulu honetan jasotako printzipio gidariak orientatuko dira, gainera, pertsonen eta taldeen desberdintasun- eta bazterkeria-egoerak gainditzera, hain zuzen ere haien inguruabar pertsonal edo sozialetatik edo beste edozein motatako bazterkeria edo bazterketa modutatik heldu direnak. Horretarako, politika publikoen garapenak erraztasunak emanen ditu kasuan kasuko zerbitzu edo prestazioak eskuratzeko, eta doakotasun edo kostu murriztuko kasuak ezarriko ditu, egoera ekonomiko eskasetan.

31. artikulua. Hartzaileak.

1. Titulu honetan aipatzen diren printzipio gidarien jomuga foru erakundeak eta Nafarroako administrazio publikoak izanen dira.

2. "Foru erakundetzat" jotzen dira Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituenak eta Nafarroako Parlamentuak foru legeen bidez halakotzat sortu dituenak.

3. Honakoak izanen dira Nafarroako administrazio publikoak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak, haien menpeko erakunde publikoak, sozietateak eta haiek sortutako fundazio publikoak, partaidetzaren

gehiengoa edo kontrol erabakigarria edukiz gero; lege bidez sortzen diren edo arautzen diren administrazioak, zuzenbide publikoko entitateak, zuzenbide publikoko korporazioak edo elkargo ofizialak; administrazio batek edo batzuek eraturako partzuergoak; eta, oro har, lege bidez nahiz administrazio batek sortua izan eta interes publikoa zerbitzatzeko duen edozein entitate.

4. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Nafarroako administrazio publiko orok nahitaez sustatu beharko ditu foru lege honetan jasotzen diren printzipio gidariak, arloaren arabera eskudun den neurrian.

32. artikulua. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek helburu gisa izanen dute pertsona guztien bizi kalitatea hobetzea. Horretarako kalitatezko zerbitzu publikoak bultzatuko dituzte.

33. artikulua. Familia.

1. Familiaren babes sozial, juridiko eta ekonomikoa bermatuko da, bera oinarritzko egitura eta kohesio sozialerako faktorea baita, eta, halaber, pertsonen bizikidetasunaren eta laguntzaren lehengo gunea baita. Familiaren babesa integrala izanen da.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek neurri ekonomiko eta normatiboak sustatuko dituzte familiei laguntzeko; neurri horien helburua izanen da lana eta familia bateragarriak izan daitezela eta ondorengotza bermatzea, eta arreta berezia eskainiko diete familia ugariak.

3. Familientzako informazioa, prestakuntza eta orientazioa sustatuko da, bai eta premia bereziak dituzten familientzako arreta ere.

4. Bikote egonkorren eskubideak babestuko dira, legeek ezartzen duten moduan.

34. artikulua. Adingabeak.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek adingabeen babesa bermatuko dute; bereziki babestuko dituzte ustiaketa modu guztietatik, abandonutik, tratu txarretatik edo krudelkeriatik eta pobreziatik eta haien ondorioetatik.

2. Botere publikoek nahiz erakunde pribatuek aurrera eramaten dituzten jarduketak guztietan, lehenetsuna emanen zaio adingabearen interes gorenari.

3. Nolanahi ere, bermatuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adingabeen zaintzaz ardurako dela. Adingabeekin lotuta hartzen diren neurri guztiek haiek hezteko eta sozializatzeko

ko izaera izanen dute; kontuan izanen du adingabearen familia- eta gizarte-integrazioa, eta adingabearen identitatearen konfidentzialtasunaren printzipioaren arabera izanen da.

35. artikulua. Gazteak.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gazteen emantzipazioa eta autonomia errazteko politika publikoak sustatuko dituzte.

b) Bideak jarriko dituzte gazteek prestakuntza, enplegua eta etxebizitza lortzeko, beren bizi-proiektua garatu ahal izan dezaten.

c) Aukera emanen dute zabal parte har dezaten, eskubide eta betebeharrak berekin, bizitza publikoan eta gizartean.

36. artikulua. Zaharrak.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek pertsona zaharren babes bermatuko dute, bizimodu duin eta autonomoa izan eta erkidegoko bizitza sozialean eta hezkuntza eta kultura arloko bizitzan parte har dezaten.

Halaber, ahaleginak egiten dituzte adineko pertsonak gizartean guztiz integratzeko, belaunaldien arteko elkartasunaren eta zahartze aktiboaren printzipioetan oinarrituriko politika publikoen bitartez.

Zehazki, pertsona zaharrei babes juridikoa eta osasunaren babes bermatuko zaizkie, eta lojamendu egokirako, kulturarako eta aisiarako sarbidea, bai eta parte-hartze publikorako eta elkartzeko eskubideak ere.

37. artikulua. Ezgaitasunak dituzten pertsonak.

1. Ezgaitasunak dituzten pertsonei dagokienez, Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Haien babes bermatuko autonomia pertsonala sustatuko dituzte.

b) Gizartean, ekonomian, arlo juridikoan eta lan arloan integratzea sustatuko dute, honako printzipioei jarraituz: bazterkeria eza, irisgarritasun unibertsala eta aukeren berdintasuna.

c) Erkidegoko bizitzan eta haiengan eragina duten politikak zehazterakoan parte har dezaten sustatuko dute, haien interesak ordezkatzeko dituzten elkarten bitartez, aukeren berdintasuneko politika bat baliatuz eta ekintza positiboko neurriak garatuz.

d) Komunikazioa ahalbidetuko dieten hizkuntzen erabilera barneratuko dute. Bereziki, bermatu-

ko dute gorren zeinuen hizkuntzaren erabilera, bai eta hizkuntza hori erabiltzearen alde egiten duten pertsona gorren eskubideen eta betebeharren berdintasunera iristeko baldintzak ere; hizkuntza hori, izan ere, irakatsi, babestu eta errespetatuko da.

e) Ezgaitasun sentsorialak dituztenei komunikazioa bideratzeko sistemak erabiltzeaz arduratuko dira.

f) Zerbitzu edo erabilera publikoetako eta bidaiarien garraio kolektiboko eremu, instalazio eta egoitzetan oztopoak kentzea bultzatuko dute.

g) Behar diren neurriak ezarriko dituzte zuzenean ingurune materialaren laguntza osatzeko.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek babes berezia emanen diete mendekotasun egoeran dauden pertsonen, bizi kalitate duinak goza dezaten, eta bermatuko dute beren autonomia pertsonala segurtatzeko behar diren prestazio publikoetarako daukaten eskubidea.

38. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko aukeren berdintasun efektiboa.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek bermatuko dute emakumeen eta gizonen arteko aukeren berdintasun efektiboaren printzipioa betetzen dela lanari, prestakuntzari, lanbide sustapenari, lan baldintzei –ordainsariak barne direla– eta gainerako egoera guztiei dagokienez, eta bermatuko dute emakumeak ez direla baztertzeko haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik; eta horrelako bazterkeriak izanez gero, zehapenak ezarriko dituzte.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek zeharkakotasuna bermatuko dute generoko ikuspegia eta emakumeen ikuspegia politika publiko guztietan sartzerakoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta efektiboa eta parekotasuna lortzeko.

3. Politika publikoek, bermatuko dute modu integralean aurre egin dakiela emakumeen aurkako indarkeria modu guztiei eta izaera sexista eta baztertzailako ekintza guztiei; sustatuko dute emakumeen papera aitortzea kulturaren arloan, arlo historikoan eta arlo ekonomikoan, eta sustatuko dute emakumeen taldeek eta elkarteek parte har dezatela politika horiek prestatu eta ebaluatzerakoan.

4. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek etxeko eta familiako inguruetako zaintza eta arreta emateko lanaren balioa aitortu eta kontuan hartuko dute politika ekonomikoak eta sozialak finkatzerakoan.

39. artikulua. Osasun publikoa eta osasun laguntza.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Osasun hezkuntzako ekintzak sustatuko dituzte.

b) Osasun publikoko prestazioak sustatuko dituzte, populazioaren osasuna, zaindu, babestu eta sustatzeko.

c) Zerbitzuaren kalitatea eta osasun laguntza publikoaren doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatuko dituzte, legeek ezartzen duten moduan.

40. artikulua. Ongizatea eta gizarte kohesioa.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gizarte zerbitzuen behar adinako sistema publikoa sustatuko dute, pertsonak eta taldeak artatzeko, jendeak bere garapen pertsona eta sozial osoa lor dezan. Sistema hori, betiere, egokia izanen da Nafarroako adierazle ekonomiko eta sozialetarako.

b) Gizarte kohesioa sustatzeko eta bazterkeria eta gizarte bazterketa bideratzen duten arrazoiak deuseztatzeko politika publikoak bultzatuko dituzte.

c) Babes premia handiena duten pertsonen eta kolektiboen guztizko integrazio sozial, ekonomiko eta lan arlokoa zainduko dute, bereziki bazterkeria, pobrezia eta gizarte bazterketako arriskua pairatzen dutenen kasuan.

d) Pertsonen –bereziki ahulenen– duintasuna, segurtasuna eta babes integrala zainduko dituzte.

e) Prebentzioko politikak eta politika komunitarioak sustatuko dituzte eta legeek oinarritzat jotzen dituzten gizarte zerbitzuen zerbitzu-kalitatea bermatuko dute.

f) Pertsona guztien arteko bizikidetasuna eta sinesmen eta uste etiko eta filosofikoen dibertsitatearen errespetua zainduko dituzte, eta kulturen arteko harremanak sustatuko dituzte, elkarren eza-gutzako, elkarriketako eta bitartekaritzako esparruak bultzatuz eta sortuz.

g) Ijitoen erkidegoaren kulturaren aitorpena bermatuko dute.

41. artikulua. Emigranteak.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren neurriak sustatu eta hartuko dituzte nafarrak modu efektiboan baliatu ahal daitezen beren lurrian bizitzeko eta lan egiteko

daukaten eskubideaz, eta kanpoan bizi direnen itzulera bideratzeko baldintzak sortuko dituzte.

2. Nafarroako jatorria duten herritarrek edo Nafarroatik joan eta beste autonomia erkidego batzuetan nahiz Espainiatik kanpo bizi direnek, bai eta haien elkarte eta gizarte zentroek, beren jatorriaren aitorpena izanen dute eta eskubidea izanen dute Nafarroako bizimodu sozial eta kulturean laguntzeko eta hura partekatzeko.

42. artikulua. Etorkinak.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren ekintzak sustatuko dituzte pertsona immigranteak hartzeko araubide bat ezartzeko, eta pertsona horien laneko integrazioa eta integrazio ekonomiko, sozial eta kulturala sustatuko dute; halaber, legeetan ezarritako moduan eta beren eskumeneren esparruari dagokienez, bermatuko dute haien eskubideen eta betebeharren aitorpena eta efektibotasuna, hezkuntza munduan integratuta daudela eta gai publikoetan parte hartzen dutela.

43. artikulua. Parte-hartzearen sustapena.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gizarte zibilaren sendotzea eta elkartegintzaren, boluntaritzaren eta parte-hartze sozialaren sustapena bilatuko dituzte.

b) Parte-hartze soziala bultzatuko dute politika publikoak landu, eman eta ebaluatzerakoan; halaber, banakako parte-hartzea eta elkarleen parte-hartzea sustatuko dute arlo zibikoan, sozialean, kulturean, ekonomikoan eta politikoa, aniztasunaren, ekimen librearen eta autonomiaren printzipioak guztiz errespetatuz.

c) Herritarren eta arlo politikoko parte-hartzea eta ordezkari bideratuko dute, arreta berezia jarriz biztanle gutxien dauden eremuetan eta mendiko eremuetan.

44. artikulua. Hezkuntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak:

a) Hezkuntza sistema kalitatezkoa, irekia, anitza eta parte-hartzailea garatuko du, interes publikoa bilatuko duena eta ikasleen nortasunaren moldaera librea bermatuko duena.

b) Ikasleen giza prestakuntza, prestakuntza zientifikoa eta prestakuntza tekniko bultzatuko ditu, hain zuzen ere honako gizarte balioetan oinarritua: berdintasuna, elkartasuna, libertatea, aniztasuna, erantzukizun zibikoa, tolerantzia, bizikide-

tasun baketsua eta demokraziaren funtsa diren gainerakoak.

c) Hezkuntzaren arloko berdintasuna bermatu du nahitaezko hezkuntza maila guztietan eta legez ezartzen diren gainerako mailetan.

d) Beken eta ikasteko laguntzen sistema bat ezarriko du, pertsona guztiei gainerako hezkuntza maila guztietarako sarbidea bermatzeko, betiere beren baliabide eta gaitasunen arabera.

e) Ikastetxe pribatuetarako funts publikoak artikulatuko ditu, legeek ezartzen dutenaren arabera, haietarako sarbidea berdintasun baldintzetan eta kalitate-baldintzetan bermatzeko. Berdintasun baldintzetan sartzearen ondorioetarako, ikasleak onartzeko ezartzen edo exijitzen diren baldintzak ezin izanen dira baztertzailak izan.

f) Hezkuntza planetan, bizitza politikoaren eta sozialaren arlo guztietan, aniztasun kulturalaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak sartuko dira. Hezkuntza sistemak ikasleek ekintzaile izateko gaitasuna, hizkuntza aniztasuna eta teknologia berrien erabilera sustatuko ditu.

g) Hezkuntza sistema orokorra Nafarroako berriazko irakaskuntzekin osatuko da.

h) Derrigorrezko hezkuntzaren amaieran, Europar Batasuneko gaztelaniaz besteko laneko hizkuntza ofizial baten ezagutza nahikoa sustatuko du.

i) Familiak seme-alaben hezkuntzan inplikatzeko eta parte hartzea sustatuko ditu, hezkuntza erkidegoaren esparruan, eta aisialdiko hezkuntza jardueretarako sarbidea bideratu eta sustatuko du.

j) Nafarroan ezarritako unibertsitateen lana babestuko du eta haien irakaskuntza eta ikerketa jardueretan bikaintasuna lortzea estimulatuko du.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bermatu du bere hezkuntza-eskaintzara merezimendu eta berdintasun baldintzetan sartzea, legeek ezartzen duten moduan.

45. artikulua. Kultura.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Kultura eta haren agerpenak bultzatuko dituzte, populazio guztiari zerbitzua emateko.

b) Kultur dibertsitatearen errespetua sustatuko dute.

c) Behar diren ekintzak sustatuko dituzte pertsona guztiek kulturarako, kultur ondasun eta zerbitzuetarako eta Nafarroako ondare kultural, arke-

ologiko, historiko, industrial eta artistikorako sarbidea izan dezaten bideratzeko.

d) Nafarroako herriaren identitatea eta balio kulturalak babestu eta defendatzea zainduko dute, bai eta haien kanpoan sustatzea ere.

e) Nafarroako ondare kultural, historiko eta artistikoaren kontserbazioa, balioan jartzea eta zabaltzea bermatuko dute.

46. artikulua. Aurrerapen ekonomiko eta soziala.

1. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek eta Administrazioak behar diren neurriak hartuko dituzte Nafarroako eta nafarren aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko, elkartzuneko, gizarte- eta lurralde-kohesioa, garapen iraunkorreko eta aukeren berdintasuneko printzipioetan oinarrituta.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek beren jardunetan errentaren banaketa pertsonal eta lurraldeko banaketa orekatuagoa sustatuko dute, ongizateko sistema baten esparruan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eragile ekonomiko eta gizarte eragileekiko –eta beraien arteko– elkarrizketa soziala eta itunak, negoziazio kolektiboa eta produkzio-bilbearen garapenean eta hobekuntzan parte hartzea sustatuko ditu. Horretarako gizarte eragileekiko topaketarako esparru instituzionalak bultzatu eta hobetuko ditu.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, honakoak sustatuko ditu: enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lan-segurtasuneko eta lan-osasuneko baldintzetan, lan arriskuen prebentzioa, laneko prestakuntza eta sustapena, enplegura sartzeko aukeren berdintasuna eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko laneko parekatzea, eta lana eta familia bateragarri egitea.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erraztasunak emanen ditu enpresen jarduerarako eta ekintzaile izateko, kontuan izanda enpresak duen erantzukizun soziala, ekimen librea eta lehiakortasunerako baldintzak; eta bereziki sustatuko du ekonomia produktiboa, ekintzaile autonomoen jarduera, enpresa txiki eta ertainen jarduera eta ekonomia sozialeko ekimenak, bai eta kooperatibismoa ere. Halaber, enpresen kanporako proiektzioa sustatuko du.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bitartekaritza eta arbitrajea sustatuko ditu

eragile sozialen eta lan eragileen arteko interesen gatazkak ebazteko.

7. Lanbide antolamenduei eta interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzan dituzten Zuzenbide publikoko korporazioei eta hirugarren sektoreko elkarte-entitateei kontsulta eginen zaie haiengan eragina duten politika publikoen definituari buruz.

47. artikulua. Ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ikerketa zientifikoa, garapena, kalitatezko berrikuntza teknologiko eta tekniko eta sormen artistikoa sustatuko ditu, foru erkidegoko aurrerapen ekonomiko eta soziala bermatzeko.

48. artikulua. Lehen sektorea eta landa garapena.

Aitorpen sozial eta kulturala egin beharra dago Nafarroako lehen sektoreari buruz eta zenbait arlotan bete izan duen eginkizun garrantzitsuari buruz: batetik, jarduera produktibo eta ekonomikoa; eta bestetik, paisaiari, lurraldeari, ingurumenari, kulturari, tradizioei eta Nafarroako identitatearen bereizgarrienak diren tradizio eta ohiturei eustea. Bada aitorpen hori oinarri harturik, administrazio publikoek neurri politiko, fiskal, juridiko eta lege arlokoak hartuko dituzte sektore horren eskubideak bermatzeko, horren barne direla nekazaritza-elikagaien sektorea, garapen teknologiko eta bioteknologikoaren bitartez, eta nekazariak, abeltzainak, basozainak, ekoizleak eta enpresariak, sektore hori garatzen eta babesten baitute.

49. artikulua. Ingurumena eta garapen iraunkorra.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek ingurumenaren babesa zainduko dute garapen iraunkorren eta elkartasun kolektibo eta belaunaldien artekoan oinarritutako politika publikoen bitartez.

2. Ingurumenaren arloko politikek prebentzioa, ardura eta etorkizuneko belaunaldien eskubideetako errespetua izanen dute printzipio gidari gisa, eta bereziki zuzenduko dira kutsadura modu guztiak gutxitzea, babeserako estandarrak eta gutxieneko mailak finkatzera, ingurumen-eragina zuzentzeko neurriak artikulatzera, baliabideak modu arrazionalen erabiltzera, airearen eta uraren kalitatea hobetzera, higadurari eta erregimen atmosferiko eta klimatiko nahasten duten jardueri aurrea hartzea eta kontrolatzera, energia berriztagarriak bultzatu eta garatzera, energia aurreztu eta hartan efizientzia lortzea eta biodibertsitatea babesteko printzipioak errespetatzera, baliabide eta espazio

naturalak kontserbatzera, erantzukizunez jokatzera eta ondasunak eta produktuak birziklatu eta berrerabiltzera.

3. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek sustatuko dute ingurumen-helburuak politika sektorialetan integra daitezela, eta behar diren baldintzak ezarriko dituzte pertsonen ondare naturalaz eta paisaiaz gozatzeko bidea emateko.

4. Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko eskudunek ibaien, hezeguneen eta urarekin lotutako ekosistemen eta paisaien kontserbazioa eta hobetzea zainduko dituzte, uraren erabilera arrazionala eginez eta ura saneatu eta arazteko sistema egokiak ezarriz.

5. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek ingurumena zaindu eta hobetzeko balioen gaineko hezkuntza eta ingurumena ondare komun gisa hobetzea sustatuko dute.

50. artikulua. Hirigintza eta lurralde-oreka.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Hiri ingurunearen kalitatea mantendu eta hobetuko dute.

b) Lurzoruaren erabilera arrazionala defendatuko dute, espekulazioa saihesteko behar diren neurri guztiak hartuz.

c) Hirigintza jardueratik heldu diren onuren eta zamen banaketa zuzena sustatuko dute eta bermatuko dute erkidegoak egoki parte hartzen duela lurralde-ekintzak eta hirigintza-ekintzak sortutako plusbalioetan.

d) Sustatuko dute herritarrek parte har dezaten lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, eta bermatuko dute herritarrek informaziorako duten eskubidea.

e) Lurzoru-ondare publikoak eratu edo zabal daitezela sustatuko dute.

f) Kohesio ekonomikoa eta lurraldekoa zainduko dute, batetik Nafarroako mendi-eremuen tratamendu berezia eta bestetik sektore produktiboak, interes orokorreko zerbitzuak eta komunikazio-sareak egoki banatzen direla bermatuko duten politikak aplikatuz.

g) Landa eremuen modernizatzea eta garapen integrala bultzatuko dituzte, haiei behar adinako azpiegiturak eta zerbitzu publikoak emanez.

h) Nafarroako hiri-eremuen eta landa-eremuen arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalak zuzentzea sustatuko dute, haien arteko elkartasuna bultzatuz.

i) Neurri instituzional, ekonomiko, industrial eta sozialak hartuko dituzte populazioa finkatu, integratu, handitu eta erakartzeko.

51. artikulua. Etxebizitza

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek etxebizitza duin eta egokirako sarbidea erraztuko dute, jabetzan nahiz errentamenduan, etxebizitzetarako lurzorua sortuz eta etxebizitza babestuak sustatuz, eta arreta berezia jarriko dute gazteengan eta premia handiena duten kolektiboetan.

2. Honako helburu orokor hauek izanen dituzte Nafarroako administrazio publikoek etxebizitzaren arloan:

a) Populazioaren benetako beharren arabera etxebizitzaren eskaintza egokia egitea.

b) Etxebizitzaren eta haien ingurunearen kalitatea hobetzea eta bermatzea.

c) Etxebizitza babestuaren eraikuntza sustatzea, bai jabetza araubidean, bai errentamendu araubidean ere.

d) Etxebizitza babestuak egiteko lurzorua lortu eta urbanizatzea, eta zerbitzuez eta ekipamenduez egoki hornitzea.

e) Etxebizitzaren eta hiri-eremuen zaharberritzea sustatzea.

f) Hutsik dauden etxebizitzaren errentamendua sustatzea.

g) Errentamendu araubideko etxebizitzak sustatzea eta horrelako erabilera izanen duten etxebizitzaren parkeak sortzea.

h) Etxebizitza ekologikoa sustatzea, bioeraikuntzaren eta bioklimatismoaren bitartez.

3. Etxebizitza babestuen sustapenentarako sarbidean kontuan hartuko dira, funtsean, etxebizitza bat izateko egiazaturiko premiak, errenta eta eskatzaileek behar bezala justifikatutako beste inguruabar batzuk.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du etxebizitza babestuak ohiko etxebizitza gisa eta etxebizitza iraunkor gisa erabili daitezkeen, haiekin espekulaziorik ez egiteko.

52. artikulua. Herritarren babes.

Nafarroako administrazio publikoek herritarren arreta- eta babes-zerbitzua emanen dute larrialdi, hondamendu edo zorigaitz publikoko egoeretan, larrialdiak kudeatzeko sistema bateratu eta integratu baten bitartez. Bereziki, hondamendi naturalen eta bat-batean gertatutakoetan kalteak pairatu

dituzten pertsonen eskubideak eta beharrak zainduko dituzte.

53. artikulua. Mugikortasuna eta bide-segurtasuna.

1. Arloan eskumenak dituzten Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek garraio- eta komunikazio-politikak sustatuko dituzte; hain zuzen ere, iraunkortasun irizpideetan oinarritutakoak izanen dira, eta garraio publikoaren erabilera eta mugikortasunaren hobekuntza sustatuko dute, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna bermatuz.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek lehentasuna emanen diete bide segurtasuna areagotzeko eta trafikoko istripuak gutxitzeko neurriei, eta arreta berezia eskainiko diete prebentzioari, bide hezkuntzari eta biktimei laguntza emateari.

54. artikulua. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak.

Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko eskudunek:

a) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasunaren babes, segurtasuna eta eskubideen eta interes legitimoen defentsa bermatuko dituzte.

b) Kontsumoaren arloko bitartekaritza eta arbitraje tresnak badaudela bermatuko dute, haien ezagutza eta erabilera sustatuz, eta babes emanen diete kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkar-teei.

c) Kontsumo arduratsu, solidario, iraunkor eta kalitatezkoa sustatuko dute, batez ere elikaduraren arloan.

55. artikulua. Turismoa.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek turismo-jarduera bultzatuko dute, Nafarroako elementu ekonomiko estrategiko baten gisara.

2. Turismo jardueraren sustapena eta antolamendua hura ingurumenarekiko, kultur ondarearekiko, paisaiarekiko eta lurraldearekiko errespetuarekin bateragarri egiteko xedez egingen dira; halaber, sustapen eta antolamendu ekonomikoko politika orokorrak bultzatuko dira, epe ertain eta luzeko hazkunde ekonomikoa sustatzeko xedez.

56. artikulua. Garapenerako lankidetzaren sustapena.

1. Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek lankidetzaren ekintzak eta herrien garapenean laguntzeko politikak sustatuko dituzte, eta

larrialdiko giza laguntzako programak ezarriko dituzte.

2. Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek bakearen kultura sustatuko dute, honako bitartez: askatasuna, berdintasuna, aniztasuna, justizia, elkartasuna, legearekiko errespetua eta gainerako eskubideen errespetua, partehartzea, kohesio soziala, generoko ekitatea, garapen iraunkorra, indarkeria eza, tolerantzia eta zibismoa.

3. Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek indarkeria, gorrotoa, bazterketa eta tolerantzia eza sustatzen edo justifikatzen duten eta pertsonen duintasunaren, libertatearen edo berdintasunaren aurkakoak diren jarrerak gaitzesten dituzte.

57. artikulua. Hedabideak.

1. Informazio edo ideiak komunikatzeko eskubidea bermatzen da, agintari publikoen beharrik gabeko injerentziarik gabe.

2. Foru erakundeek bermatuko dute herritarrek eskubidea dutela, bereziki hedabideen bitartez, informazio anitz eta egiazkoa eta pertsonen duintasuna eta aniztasun politiko, sozial, kultural eta erlijiosoa errespetatzen duten eduki batzuk jasotzeko. Titularitate publikoko hedabideen kasuan, informazioa neutrala ere izanen da.

3. Hedabideekiko beren harremanetan, Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioak errespetatuko dituzte.

4. Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako kulturaren hedapena eta presentzia sustatuko dute hedabideetan.

58. artikulua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak:

a) Bilatuko du Nafarroa guztiz sar dadila ezagutzaren gizaratean.

b) Nafarroa osoan erraztuko du informazioaren gizaratearen hedapena, eta bultzatuko du komunikaziorako eta informazioaren teknologietarako sarbidea gizarate bizitzako esparru guztietan, baita lanaren esparruan ere.

c) Sustatuko du teknologia horiek pertsonen zerbitzura jar daitezela eta ez dezatela eragin negatiborik izan haien eskubideetan.

d) Bermatuko du teknologia horien bitartez ematen diren zerbitzuek unibertsaltasun, jarraitutasun eta gaurkotasun printzipioak betetzen dituztela.

e) Prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza teknologikoak sustatuko ditu, ezagutzaren eta informazioaren gizarateak aurrerabiderako eskaintzen dituen aukerak gizaratearen ongizatea eta kohesioa hobetzeko lagungarri gerta daitezten.

2. Horretarako gaitasuna duten Nafarroako administrazio publikoek herritarren zerbitzura egonen den administrazio elektronikoko efiziente baten ezarpena sustatuko dute, teknika eta baliabide elektronikoko, informatiko eta telematikokoak sartuz prozedura administratiboetan eta hartu-emanetan.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera hartuko du indarra.

